# EGUNA JEL

Zeure abeti - elia maite ezpa-dozu, zeure abetia bez, eztozu maite.

Lgo. urtia | 64'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n '937'gn. epailla 16'gna. astartea | 15 eunen


# Frantze bake-zale da, baña nai edo ez gudarako gertu bear, esan dau Daladier'ek

## Alemani'k milloe bat gizon tinko (irmo) daukoz geŕarako, armarik auŕeratuenekaz orniduta; Italia itxaso eta egazkiñetako gudariak ugarituten ariñeketa bizian; Rusia'n milloe bat gudari baño geyago gertu; Polonia, Batza Txikia, Suiza eta Inglateŕa geŕan pentsaten eta berari begira. - Asturias'en, Iltegi zaŕaren ondoan gogorketak egiten. - Beste izpaŕak.

Latefi Batuetako Washington'en, Hudson ibaya ospetsubetaikua dozu.-Ibai ori ziaŕkatuteko egiñiko zubiak be, ospetsubak dira, ta bai edefak be. - Lenengo agiri dan au, zafa da ta bigafena bafia. - Ofa zuek, Washington ikusi, itxasua igaro barik.





Paris.—Daladier ministruak itxaldi bat egin dau radiotik, guda arazoetako dirutza berezia defendiduten.

Dirutza ori 10.500 miloe frankora eltxen da.

Gastu ofegaz Frantze zaindu al izango da. Eta beste eŕiak egin dabenaren ondoren, Frantze'ren bide au zuzena dala autortu bear.

Alemani'k miloi bat gizon tinko (irmo) ditu geŕarako, armarik gogoŕ, indaŕtsu ta auŕeratuenekaz orniduta. Italia itxaso eta egazkiñetako gudariak ugaritzen dabil, ariñeketa bizian toili be; Rusia'k miloe bat gudari baño geyago gertu daukoz, milaka tanke, milaka egazkin eta orain egiten dabilan itxasgo altsuagáz; Polonia, Batza Txikia, Suiza eta Inglatefa'k bide bardiña daroe.

Frantze'ko Gobernua bake zale da, baña bestien jokaera ikusi ondoren armateko beartasuna ezagutu beaŕ da eta mugak, bereziki Goi aldekoak indaŕtu ta gogoŕtu beaŕ dira.

IGANDEZ BAKETSU, GUDA TOKI TA GUDA-LUBAN GIÑAN NAIKO LAN

Gijon.—Agintariek emon ebezan izpaŕak. Aranegun gabaz bezanak auxe diñoe:

"Guda-sail gaztieta bake baketan egon dira gauŕ. Guda izkilu ta guzti iru gudaŕi etoŕi dira zuregana."

JAI BAT

Valencia.—Datoŕen eguenean Apolo antzokian S. S. I. aldeko jai bat egingo da.

Benavente anizerki egileak lan bat irakuŕiko dau.

Teatro lan bat irudituko da eta Zozaya'tar Andoni dazleak zer-esanak egingo ditu.

## ALEMANI'REN ERANTZUNA

Londres.—Eden edo Ribbentrop'ek joandunaldi luzea izan dabe Locarno'ko itunbenari Alemani'k egin dautson erantzuna dala-ta.

Erantzun ori luzegi dalako azterbideko astirik eztabe izan eta egun geyagotan, alkaŕ ikusi beaŕko dabe.

### GUADALAJARA'KO GUDAKETAK

# Españar eŕepublikaŕen gudariak iñongo gudariak lortu eztaben añako garaitza lortu dute. - Erbesteko izpaŕingiak diñoena. - Beste izpaŕak.

Londres.—Erañegun Guadalajara'n burututako gudaketari buruz jardun dute izpaŕingietaraiñoko guztiak. Erkaldaŕen kemena ta gurenda goratzeari lotu dira danak

"Manchester Guardian" izpaŕingitik jasotakoa da onako zati au:

"Erkaldaŕen ekiña iñoiz gudarostek lortu izan duan gurendarik mardulena izan da. Guda oin ortan ogeitamaŕen bat mila gizon batu zituan arerioaren eraso-gogoak; italiaŕ gudarostekoak ziran geientzuenak. Lenengo erasotan paxistaŕak ziran nagusi, Frantze'rako bide-txabal ertzeraiño sartu ziran. Gobernuak, baiña, une iaŕiotan ain bat gudari bialdu zituan eta, geroz, paxistaŕak izan dira estu ta laŕi ibili diranak. Ostegunez zan guzti ori.

Ostiralez, atzeraka asi zan rerioa.

Larunbatez, kañoiak gofitu arteraiño egundoko erasoari eman zioten erkaldaŕak. Trijueque eŕiruntz asi ziran tankeak, paxistaŕ-taldea agiri zan lekura bertara Jo ta su, auŕera, ausardiz ta kemenez, eŕiko guztiak anka jokoari lotu ziran. Arerioa koldartuta, aurpegi eman eziñez, atzeraka asi zan, kilometroetan baiña atzera. Erkaldaŕ egazkinlariak ere, igesi zijoan arerioari, ez zioten zuŕa goxo goxoa eman, austuta utsi zuten. Erkaldaŕak egundoko guda-gai pila kendu zieten paxistaŕai: kañoi, ametraladora, izkilu, gai ta ogeitamaŕ paxistaŕ gudari atxilotu gaiñera."

"Daily Herald" ere, gudaketa ofetazbadu bere zatia. Ona emen:

"Franco'ren alde gudaketan diarduten italiaŕ gudari taldeak, ezbeaŕik gordiñena izan zuten larunbateko erkaldaŕen erauntsia burutu zanean.

Amabost egunez gutxienez oŕ ibili da arerioa Gudalajara aldetik jo ta su asteko gertutzen. Madrid be aldeko gudariakin alkaŕ adituta, Guadalajara'ra sartzea zuten asmo, Madrid ta Levante'ko bide-txabala apuŕtuaz. Ortarako italiaŕ gudarosteko milaka asko batu zituan arerioak eta, ikusi danez, ainbat kañoi, tanke ta guda-gai pila edeŕa gaiñera. Ekin zioten francotaŕok ekin eta, lenengo joaldiari edeŕ iritzita, auŕeraka asi ziran. Cienfuegos ondoraiño eldu ziran baiña Cienfuegos'en erkaldaŕak majo eutsi zieten.

Ostirala uŕengo eguna, Egun 'negargaŕia paxistaŕentzat. Erkaldaŕ gudari ta egazkinlariak, danak batera, buru ta biotz ekin zioten eta ainbat eriotza ta zauritu egin arerioari ta auŕeko egonlekuetaraiño erdu.

Larunbata. Goizabaŕa. Kañoiak goŕi, suntupa otsa nagusi, erkaldaŕak bene-benetan ekin zioten. Trijueque eŕian zeuden paxistaŕak araxe begira jaŕi rituzten erkaldaŕak kañoi ta izkilu, buru ta biotz, begi ta belaŕi. Ofatio ere erantzun zuan arerioak, baiña erkaldaŕak, bizi-bizian, kemena gaiñez, tankeak auŕetik, auŕera ta auŕera asi ziran eta arerioaren egon lekuetaraiño iritxi ta eŕi-baŕuraiño sartu. Bere-geitamaŕ miñutuko sutunpa otsa izan zan eŕian. Ondoren, zalapartaka, naasian, iges batean, atzeraka lotu ziran paxistaŕak eta ainbat ildako bidean utsi. Baziran atxilotuak ere; teniente koronel eta opizialak ugari tartean. Paxistaŕak bidean utsitako bi kañoi luze, antiaereo bat, irurogeitamaŕ ametraladora, eundaka izkilu, gudagai pila ta tanke batzuk jaso zituzten erkaldaŕak. Bi mila betuta inguru izan zituan larunbatez arerioak; ildako ta zaurituakoak tarteko dirala, bi mila.

**AROTZ BAT TXAŔA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXAŔAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTAŔA.**

### KANPOSANTU ZAŔEAN GUDA -TOKI-GIÑAN

Igandez ez eben egin guda joaldirik Oviedo'n; ez igandea zalako, agintarien asmoa orixe zalako baiño. Agintariak guda-joaldirik egitea zergaitik nai izan ez eben, ezin azaldu daike.

Oviedo'n esi barututa dagozanok arañegux poŕik izango giran, zapusturik artzeka.

Kanposantu zaŕeen inguruan eŕi-aldeleak paxistei iges eragin eutsen ingurnan guda toki ta guda luban edaŕak egin dabez. Guda-lubanok zabalera aundian egin dabez. Guda-luban oŕeitan adi ta zuŕ dagoz eŕi-aldezleak paxistei aruntz-onuntzei begira. Zirkiñik auŕeruntz egiten asten baldira, bera beaŕ dabe.

Paxistok eurok, be, adi dagoz. Eŕi-aldezleen guda tokietatik ikasgaiekin ikusten danez, guda-tokiak gizonez ondo orniduta dabez ta beti lagoz zain. Zerbaiten bilduŕ dira ausago.

Arañegun baketsu izan dira. San Lazaro'n eta El Fresno'n noiz edo bein dunbedots batzuk entzuten dira.

Colloto'tik eta Lugones'tik La Cadellada'ko guda tokietara suaga batzuk jaurtzen izan dabez, paxistei ezer atontzen eragozteaŕen.

Ofez gaiñera iru gudari izkilu ta guztl eŕi-aldezleengana etoŕtea izan da iakin gaŕirik.

ERANTZUTEN

Roma.—Ciano'ko kondeak, Locarno'ko tratadua izenpetu ebenei tratadu baŕi bat egiteko, Inglateŕa'k egin eutsen deyari erantzuna emon dautso ingeles ordezkariari.

Erantzun ori Almani'k emon dabenaren kideko da.

ESPAÑA'REN ALDE

Paris. — Gizonaren Eskubidien Aldeko Batzak dei baŕi bat egin dautso demokrazi zale diran eriei españaŕ gudearen luzatzea galerazo dagien, eta batez be, paxista eŕien gudariak bialtzia amaitu dagien.

## Txiŕistadak

Galdu zala etxan esaten ba?

Euzkadi'ko gobernuak bilatu dau.

Bermeo'ko itxas-izurde bat Burdeos'era juan da bere bila.

Oraingoan bai izango dala "O terror dos mares".

* * *

Euzko mariñel bulartsuei zor yaken omena egin yakoe.

"Jose Luis Diez" euren eskuetan jausi da.

"Nabaŕa" eta "Gipuzkoa,,'koen odola ezta alpeŕik galdu.

* * *

"Kale bedaŕak" baseŕira doaz geratu barik.

Atea jo ta...

Baña baseŕitaŕak ba'dakie zer egin.

Atzo batek "Aquí hay cólera" ipiñi eban atean.

Eta izerdi-lapatsetan eltzen ziranak, dotore-dotore lengo bidea artzen eben.

Bada ezpa'dan!

* * *

Auzo ikastolak norenak dira?

Eztira ba Bizkai'ko Diputaziño'arenak?

Noix ikusiko dogu euretan euzko ikuŕiña?

* * *

Euzkadi'k bere buruaren jaube izateko, eskubide ori irabazi egin bear dabela...

Eta entzuleak txalotu egin dabe.

Ba'gara edo ez, komunista jaunak?

* * *

Buru-jaube izateko eskubide ori irabazi egin bear dala?

Eta eskubide ori berezkoa ba'da?

Eta berezkoa izan aŕen be, neke ta zoritxaŕ ondoren irabazi ba'da?

### ATZO MADRID'EN

## Jarama aldean paxistak joten asi ziran, baña pofot

Madrid.—Jarama aldean joten asi ziran atzo paxistak, azken egunetan galdutako lufaldeak baŕiro eskuratu nairik, nonbait.

Gogoŕ asi ziran Marañosa ta Tajuña'n, baña eguerdira orduko makaldu ziran, eta orduan, eŕizaleak erantzunez egin eutsen erasoaldiaz, paxistak atzerantza batu beaŕa izan eben.

Alde bietako artileriak ixildu bage jarduna.

Guadarrama inguruetan bizkoŕaldia izan eben, eta eguraldi onen sumora, eŕizaleak lekuak obetuten aspertzeke ekin dautse.

Trijueque'n, italiaŕak atzeruntz egin dabe, euren taldeak baŕiro antolatu beaŕez. Galdutako lufaldeak joŕtuteko azkar gertu nai dabe, baña eŕizalien kañoe ta egazkiñak ez dautse baketan lagaten.

Usera'n be, beste oŕenbeste esan giñei.

El Pardo'n, erkaldaŕen kañoien saŕaketa, eta enparaukoetan esatekorik ezer ez.

Euzkadi'k buru-jaube izateko ditun eskubideak eskubide ez ba'lira be, uste dau Astigaŕabia jaunak, eta uste dabe "Euzkadi Roja,'kuak azkatasunaren alde il diranen odola eztala naiko eskubide?

* * *

Bat izan eta beste agertu... gaitz erdi.

Eŕia atzipetuteko era asko dagoz. Baña eŕiaŕi arpegikorik emon ez.

Arpegikoa artzen dabenak ostikadeaz erantzuten daki.

Euzkotaŕak orain jakingo dabe legetxe.

ONDAR

# BILBAO'KO izparringijak diñuena

## "Euzkadi"

"Luf-Gorri" idazle jayuaren idazlana argitaltzen dau lenengo zefendan. Eta idazlanaren ixenpurubak onixek dira: "Nuestro ideal, en la palestra" eta "Libertad patria".

Euzkotarron gogayak, gudatokijan be, abeñjaren azkatasunatzazko gogayak dirala esan gura dauskube ixenpuru ofeik.

Euzkotarren azkatasunak azkatasunerako bidia ikuraztuta daukala diño, gurenda-galufera eldu gura dabenak alantxe euki biar dabela euki besta.

Euzkotarak euren azkatasun-bidia astiz eta ondo arakatubaz jarratuten ei-dabe jarratube, lortuten dan azkatasunari iraunazotek arakatuten diran bidiak ondo ikuraztuta lega biar dirala-ta. Diñuana sendotuteko, Andre Gilde jakintsubaren esakun bat atatuten dausku: "Azkatuten jakitia, efeza da; azke bixi ixaten jakitia, baña, gatxa be gatxa".

Esakun ori guri esateko egoki-egokija da ixan be. Azke ta zoruntsu bixi ixanak gara, ba, gu. Azkatasuna ta zoruntsutasun gusti arelk be, baña, eskubetan ixan geban azkatasun areri eusten jakin ixan ez gebalako, galdu egin gebazan.

Orain loftuko dogunari, baña, sendo eutsiko dautsagu, ludijak dirauan artian sendo ta jori iraun dagijantzat.

## "Tierra Vasca"

"Politica. Contradicciones". Ona emen izparingi onek lenengo leluetan idazten dabezan ixenpurubak.

Iñorenari jaramonge, bakotxa bere efiketa-ereari sendo oratuta eurentxubenak egiten ibilten diranari eragoten dautse. Esakun zarak diñuala-a, besatean dauskuna, auxe da, bafiz: "gofik txafena, entzun gura ez dabenarena dala".

Eta iñoren egirik entzun gura ez daben asko bixi dirala esaten dausku Gofera ori, baña, kaltegaf-taltegafija dala uste dau iñori be onik ekazin leikijona dalako.

Geure agintarijak uste onez agintzen dauskubenen gurendea loftutia dali uste dogu bein-beingo gure egin biari aldintsubena ta onurarik geyen ekafiko leuskigun be.

Zuzenez zuzena dan bidiari jarittzia baño gurenda aundijagorik, ezegaz be ez dogu loftuko. ¡Ez orixe!

## "Lan-Deya"

"Derechos del baserifar". Olantxe ixenpurututen dau lenengo idazlana.

Eta idazlan onetan, baserifaren a cezle agertuten da.

Baserifarak euren aberientzako janarijak eta erosi biar dabezenian, saneurfi aundijak ordaindu biafa ixaten ei-dabe. Ordez baña, eurak erosi biafa dabezan baba, zai ta beste pentzubari, saneufirik ez ei-dautsa neufituten. Baserifaraka saldu biar dabezanai, neufija ezaften ei yake, ostera.

Langilen artian lanik geyen egiten dabena, baserifarak dala esaten dau. Baserifarak bere luf-lantzetarako-ta, ordu ixentaurik ez ei-dau bein be ixaten. Enparauko langiliak, ostera, ordubak eta beste eskubidiak aldeztutekо be, euren bazkunak ei-dabez.

Baserifarak be beste ofen beste egin biaf leukiela diño: euren lana ta lanetik ataraten dabenari yaokan garantzija ta lotsea emoteko bazkunak egin. Baserifara gixaftiaren eustafirik sen duena e-la, bafiz. Eta eustafirik sen duena dalako, lagundu egin biaf ei-yako.

## "El Liberal"

Asturias ko gudeari deragoyo. Efkaldafen suagak paxiotafenai, gogof b gogof erasoten ei dautse. Paxiotafak Cadellada-aldian euki ebezan sabayak deuseztuta geratu e-iran. Sabayak deseztuta ta euretan aurkitzen ziran gudarijak zaurituta. Ilda jausi ziranak be askotxu ixan zirela diño.

Gudaketea amatu zanian eta arejk iges-egiñaz bertan bera laga ebezan eskutu-okijak ikusi, lufak azpijan aftuta ilotzik geratu ixan ziran gorpu asko ikusi ixan e-bezan.

Oviedo'ko guda-auzija efkaldafen tzat geruago ta obeto dualakua agertuten dau.

Beste zefenda baten agintza bakafarj deragoyo. Agintza bakafa Madrid'ko gud-oñetan emoten dabezan ondorenak txalogafijak dirala diño.

## "Euzkadi Roja"

Baltsakeri-zalien izparingi onek bere lenengo ingoskijan argitaltzen dau argazkija, Marx Karla'rena da. Marx il zala, ain zuzen be, ontxe osotuten dirala diño 54 urte.

Eta ori dala-ta, Euzkadi'ko baltsakeri zalien alderdijak, 54'garen urtefuren ori, uste ofegaz eraldutako ja batzukaz ospatuten dabela diño.

Eta bertan ingoskijan argitaltzen dau Lenin zanak idatzi eban Marx zenaren biztelestija.

Eta ondiño geyago be argitaltzen dau: Engels'ek Marx'etzaz oguzitako itzaldija.

## "El Noticiero Bilbaino"

Gipuzkoa'ko ta Araba'ko guda-izparak dakafzkuz.

Efe-ldezlin suagak egunoro egiten daben lana goragafija dala diño. Oneik botaten dabezan berunbilak, lenengo ondo oldoztuta ta nora botaten dabezan ondo ikusita botaten dabezenak ixaten ei-dira.

Karakate-aldian aurkitzen diran xiotaren egon-tokijetaranz joyezan gudorniz ondo zamaturiko mando pilubari jaurti ixan ei-dautsez azkenengo oldaf-aldijan euren suagaberunbilak. Eta berunbilok bide zirala, gudornijakaz joyezan mando ta mandatzajn, bidiak galduta nora ezekijela sakabanatuta iminj ei ebezan.

Otxandiano-aldian be, gure gudarijak euren egin biafa ondo egin ixan ei-eben, bafa Orduña'ko guda-oñetan aurkitzen diranak be.

# GUDA-ARGAZKIAK





# NASKALDIJA

## "KONTROLA"

Efi lagi ta guda-lagi gustijen gofik egaiz eginda etiop.atafen gentzea ta azkatasuna apuftuta lagateko Abisinia'ra gudea eruan ebana, Italia dogu.

Eta iztegijetan be gitxi baño czagututen ez dan "kontrol" itza txifian-pitian entzunazoten dauskuna be, bera da: Italia.

卐 卐 卐

Eta "kontrol" itzaz esan gura dauskubena, ¿zer etefi... Okef dabiltzazan gauzak zuzen jaftia-edo, olankoren bat esan gura etc-lauskunekua susmetan dogu. Gauzaen azterena egiñaz, bakotxa yaokan bidetik urten barik ibiliazoteko lagizko eraen bat dala.

卐 卐 卐

Lagirik lagijena ta biderik zuzenena dala be, baña, lotsarik gitxijen aftzen dautsena be bai dala esan leike. Italia Abisinia'ren afteko guda aurijan beintzat, "kontrola" edo dalakuori, zuzentasunetik ufun ibili ixan zan. Italia'ri gura ixan eban gustija egifen laga eutsan, Abisinia'ri, ostera, egaiz egiteko eukazan eguak be, "kontrol"-okafiz lotuta imifi eutsazan.

卐 卐 卐

Aldi aretako Abisinia ta oraingo Espana, gudea buruz begiratuten ba dautsegue, begiratu, kidiak ez diranik ez dau iñok esango.

Abisinia'ren urkatzale agertuten zana, Italia ixan zan, ba. Eta España'ren erail tzale agertuten dana, be, Italia da.

卐 卐 卐

Aldi aretan, Italia'k, Efi-Batza'ko ordezkarijak ezpanetatik kendu barik era bilen eben "kontrolari", ifi egin ixan eutsan. Eta bere aldetik aftu ixan eban azkatasun gustijak Abisinia gaxuari gura ixan eban lez oldaftubaz, Etiopia gustija deuseztu ta bere menpe jafi aftian etsan geratu.

卐 卐 卐

Abisinia menpetu ta bere otsein jartia loftutiaz be, baña, etsan naikotu Italia. Ondiño geyago gura ixan eban, España'ko gudalburu etoyakin itundu zan, eta etorbidezko itunbena egin.

Eta Mussolini zigofdunak, bere zigofpe daukazan italiaf jopu gixagaxdak, zigofkadaka igifu ebazan, eta España'ra bidaldu.

卐 卐 卐

Eta gauf, Mussolini'ren jopuak, Italia, Europa gustija ta iñok ulertuten ez daben "kontrolaren" zuzentzalien lotsagafirako, España'n aurkitzen dira, eta españaf etoyakin buztaftuta dirala, benetako efi-aldezlien aufka oldaftuten dabe.

卐 卐 卐

Egi-au ludi gustijen zabal dabilan egija da. Eta "kontrolaren" ugelak eskubetan darabilezanak eta Mola ta lagunak ez beste gustijak argi ikusten daben egija da au ixan be. Lendik be argi ikusten ixan dan egi au ikusteko, bafiz, betaufeko-antzo agertu ixan yakun izpafa, beste zu da: Guadalajara'ko gudaketa nagosijan, amazortzi italiataf espe aftu ixan dabezela. Eta euren aftian, teniente koronel bat eta onen laguntzalia dan kapitana. Oneik be italiatafak, Mussolini'ren otseñak.

卐 卐 卐

Eta e-pañaf eskumatafakin batera gixabidiari auferakadea erateko España'ratu ixan diran Italia'ko Mussolini zigofdunaren gudari ta gudalburubak ekafi ixan daben gixabidia, euren agintzetan ikusi ixan dana da: lapufetea, erailketea ta lixurkerija.

卐 卐 卐

Paxiotafak; Italia, Alemania ta España'ko gudalburubakin batera azke ixateko Goiko Jauna'k irazan ebezan efijen azkatasuna erail gura daben gixabide erarik guk, euzkotafok, ez dogu gura geure efijarentzat. Gixabidekera ofeik, eskefetik ya torkuzala nai eskumatik etofi, guk, benetako efi-aldezlfak garan euzkotafok, ezetsi egingo doguz, eta gure indaf eta a-re gustijakaz oldartu.

卐 卐 卐

Geure aberija azke jafi guran abefi-gogai batek igifuta egizko abefi-gogai onein aufka dagozan gustijen aufka jagifen ba gara, jagi, orain estututen gafubezan estuntzak lastef deuseztuko geukez.

Oretarako, baña, Euzkadi'k benetako areyuak diran gustijak abeftzaletasuna bide dala betuteko, abefi-izkilu gustijci oratu biafa ixango litrake. Batez be, baña, euzkereari. Abefi aldez erab geginken izkilurik altsubena ta ondorenik onenak ekafiko leuskiguzana be, euzkerea dogu, geure abefi izuntzea.

Euzkadi'ren azkatasuna aldiau, darabilen abefi-izkilu au ¿gustijok erabilten ete dogu?... Eta izkilu au erabilten ez dakijenak, ¿beriala ikasteko alegifiik egin bai?

卐 卐 卐

Orain egun batzuk zirala, uri onetako Jon Deunen eftxadonan, euzkel-belguntzeak ixan gebazan. Eta Bilbao euzkeldun jatofez beteta aurkitzen dan aldi onetan, iñozko euzkeldunik gitxijen belguntzetaratuten zirala esan biafian gagoz. ¿Zijua? ¿Izlari txafa ixan dalako?...

卐 卐 卐

Euzkel-belguntzeak amatu ziran. Eta areik amatu ziranian, erdel-belguntzeakasi.

Azkenengo onetara, lenenguetara baño notin geyago elexaratuten da. ¿Zijua?... ¿Izlari obla dalako?...

卐 卐 卐

Euzkel belguntzako iñafkunaldijak suzendu ixan ebazana, Ufutia Aba euzkeldun jatofa ta urtzizti gauzetan asko ikasija ixan zan. Eta euzkerea be, gitxik lez ogúzi, ta gitxik lez erabilten dakijana. Ondiño geyago: kistafok ikasi biaf doguzan egijak be euzkeldun belgundari ofek lez, gustijak ezin iraratsi ixaten dabez.

卐 卐 卐

Euzkeraz ixan ziran belguntza-iñarkunak, Ufutia Abeak zuzendubak ixan zirala esan ba-dogu, orain gazteleraz egiten diñardubenak be, Ufutia Aba berberak zuzenduten dabezala esan biafian gara. Beraz, euzkel belgundarija ixan zana berbera da erdel belgundarija be.

Eta euzkeraz erabili ixan ebazan gayak darabilz erderaz be.

Belguntza bi ofetan bardiña ez dana, izkuntzea da. Eta lenengo belguntzara bigafenera baño notir gitxijago juan ba-zfran, euzkeldunok euzkerea bazteftu ixan dogulako da. Euzkadi azkatuteko daukagun izkilurik onena baztaferatubaz, Euzkadi'rentzat txafena dan izkilubari lagunduten da utsagulako.

Euzkadi azkatuko ba da, bafiz, azkatasun izkilubari oratu biaf: euzkereari.

# Nekazariak beren etxiaren jabe

Azteazkeneko idaztian, agertzen zuen gure iritziz nolakoa biaf zuen nekazariak beren etxiaren jabe egiteko bidearen "mamia". Gauf agertu nauke zein diraden gure arazoyak onela oldoztu edo pentzatzeko.

Nion Euzkadi'ko Jaurlaritza jabe egingo zala, gaurko egunian baserianlan egin eta bertan berak bizi diraden etxiez gañerantzekoeza.

Au egingo biarko luke ez bakafi nagusiak kaletafak diradenakin baizik baina ere baserifara izan afen, bertan bizi eta lana egiten duenatzaz gañerakoakin. Gure aldekoak ba'dira oldainduta nagusiari, eta ordaindu gaitz gure arerioak diradenari; Jaurlaritzak ez ordaindu afen ezkeneko oyen maizterak diraden nekazariak baseri oyetatik Jaurlaritzat artzen duen dirua izango litzake zati bat, oraingo gudaoneik bere guda trena zofotzakin efe eta apurtu dituen basefiak jasotzeko edo befitzeko, eta kalteak ordaintzeko.

Baserifaren jabetza "propiedad" nai duenak azke izango luke berjala ordaintzea izentatzen zayona; ogei urte luzlena jafiko genduke, ordaintzeko epea bada luzeago jafi ezkero ez luke pozik izango nekazariak; ogei urte oyetan ordaindu biarko luke nekazari etxe jabeak, urte safi edo "rédito" az gañera ogei urte oitean ordainketa bukatzeko biafekoa dana.

Nekazariak bakafik dena ordaintzekotan, ez litzake ain beafeko duen leguntasuna berari egitia; au izango litzake bakafik ordaintzea; ofegatik, len esan nuen bezela, seireun laurleko bada urteko ordainketa, lareun berak ordaindu dezala eta berrun laurlaritzak; lenago aitatu ditugun gure arerio ayeri, ordaintzeke artutako baserí oyetatik artu liteke ontarako biafeko dana.

Beren etxe eta lantzen dituzten lufen jabe izateko diña ez diraden, edo izan nai ez duten nekazari oyentzako, emango litzake agindu bat oyek, maister bezela, au da "usufructo" arekin geldítzeko, laurlaritzaren mendeko, beren urteko ordainketa izentatu ondoren; bañan oyek ere, berak eta beren ondorengoak, denak bertan jafaitzeko eskubidea izango luteke. Baita ere, bear luteke eskubidea, berak nai dutenian jabetzara "propiedad" irixteko izentatutzen zioten saineuria ordaindutа.

Nion nekazari bakoitzak ez duela biaf bera bizi dan baserfaren jabetasuna besterik izateko eskubiderik; au uzte det gafantzizko atala dala; "Mendizale,,k zion bezela bere semiarentzat erosteko eskubidia eman ezkero, urte batzuen buruan, atzera oyen jabetza esku gutxitara etofiko litzake, eta ara lenagok ixtilua; bosta "seme" bat botatzen du baserifik berarena sartzeafen; auxe egiten zan lenago ere; au iz da gure uzkurtzak agintzen duena: ofegatik gogofa, da bañan ate au itxegin biar da.

Bakar bakafik utziko genduke aldatu edo "trukatu" egiteko eskubidia. Askotan gertatu oi da, sendi batian edo gurasoak, edo seme alabak il dradelako, edo seme alabarik izan ez dutelako, berak duten nekazaritzako lanak ondo egin eziña, eta nekazaritza txikiagoa egokiago izatea, eta beste sendi bat "Mendizale,,'k zion erakoa egotea; oyeri, naiz diradela biak etxe jabeak naiz diradela jabe eta maizterak, edo biak maizterak, eskuidea emango geniok aldaketa ori egiteko, berak naidutela, bañan beti Jaurlaritzan baimenarekin.

Luze dijoa eta ufengoan agertuko det, zer eratara biar duen sendi bat "tajuz" bizitzeko bagefia.

EZTANDA.

# Beyak zenbat esne emoten dauan neurtuteko erea

Esne beyen obakuntzarako, abereok emoten dabeen esnaren bafi jakitia, nai ta nayezkoa da, itsu-itsuka gauzak egin gura ezpadira beintzat.

Esne-bej onaren umeak auferako azi, eta etxeko aberetegia obatutia izanik Nekazarien guraria, beyok emoten dautsen esne-neufiaren bafi jakitia egoki-egokia da.

Onetarako erarik ziuf eta zuzenena, esne-tro bakotxian, beyak emoten dauan esnea egunero neurtu eta azkenian guztiak batu ta zenbatutia da; bafia era au, bej asko dagozan etxietan, zaindaritzan be ugari izaten dituez-da, efez efeza dan afen (bei bakotxak emoten dauan esnea neurtu ta egunero ofitxo baten jartia da guztia), gure basefietan, lagun gitxik arazu askori eldu biaf izaten dautselako, luze eta gogajkafia da eurentzat; origaitik, era jabufago batzuk diran ezkero, eurak agertuko ditut, eurokaz ba, neufi-neufian ezpada-be, ufe-zamar neuda. Efez ataraten da neurketa onen bidez beyari, egunero esnea neurtu biafian, aldizka egiten yako. Aldizketa au, amar egunetik amar egunera izan leiteke edo amabostetik-amabostera. Iler be bardin. Bizkai'ko "Esne Neurketa Idaztirako" ilian bein neurtuten da. Efez ataraten da neurkta onen bartez beyak emon daben esnearen neufia: esate baterako, beyak bederatzi ilabetian esnea emon ba-dau, bederatzi bidar neurketea egingo yakon, neurketa ofetakoak batu eta ogeta amar bidar geitu ezkerokoan, urteten dauan zenbakiak, txalgintza ofetan emon dauan esne neufia emongo dausku, gitxi bat goitik betik.

Beste eraketa bat erezagua "6-5-8" deritxoena da. Latefi batzuetako Alkartasun edo Sindikatoak (euren artian Beljica eta Prantzikoak) ontza-darabilena berau. Eraketa onen bidez, esne-neurketak onetara egiten dira; txala jayo ta seigafen astian lenengoa. Bostgafen ilabetian doyanian bigafena, eta zortzigafenian irugafenez "6-5-8". Neurketa bakotxian, ogeta lau orduan erazten yakon esne guztia neurtu biaf yako. Iru neurketa oneetako esnea batu, eun bidar geitu neufi ori eta yakin gura dan zenbakia lortuten da.

Eraketa onek bere oñafi edo fundamentuak onetan ditu: Beyak eurezian 300 egun inguruan esnea emoten dau esne-aldi bakotxian eta 100 eguneko iru taldetan, aldi ori zatituta, neurketarako izentau diran egunak, talde onen erdi inguruan jauzten dira; neurketa bakotxeko esne-neufia eun bidar geitu ezkerokoan, talde aretako neufia lortuten da eta iru taldekoak batuta aro guztiko esne-neufia izango da.

Eraketa onen bidez, gure anai Gipuzkoafak beyen esnea neurtutakoak dira Fraisoro'n, eta neurketa onen ondoren erabagi au agertu eben:

300 egun inguruan esnea emoten dabeen beyetan eraketa onen bidez loftuten dan esnearen neufiak alde gitxi dauala beyak emoten dauan esnearenagaz.

Erbestian egin diran neurketatik be, azken onetara elduten da: "6-5-8" deritxon esne neurketa, egobi-egokia dala 300 egun inguruan esnea emoten dauen beyen esne-neufia jakiteko.

Nekazari, ofa emen ba era jabur eta efeza, zeure beyen esne-neufia jakiteko, eraketa onurakofa batez be Abere-Obakuntzara zuzenduten diran Nekazari-Alkartasunentzako.

ALKORTATAR M.

("Ereintza,,'tik.)

# Euzko gudariak Asturias'en

Gure jokaeraren befi emateko onduen nor beak ikusitakuak dira. Izparfak gure saildietzaz ixil egon afen: egin ditugun lan onurakafiak oroigafi zaizkigu benetan.

Lan egin zigutela befiro. Atseder uzte au juan giñan Las Caldas efitxora, ta ganeko amaketan deadaf ta otsa bazan "Arriba todo el batallón" "Urgén", eta bigunki jaiki beafa izan genduan. ¿Nora? Pando'ra.

卐 卐 卐

Gabaz areriyuak atakau zuten kamiñoa irekitzeko asmoz. Alperikakoa ordea. Julapa edera eman, eta ufen afte...

Albuan zegon mendijtxo edo parapetotan gure lagundi Aitz-Zofotz jafgiñan. Leku berezi ontatik ederki ikusten da areriyuen ebilera guzia.

Ontan beste egun bat, eta... goizeko lenen ordueten berrun. ¡Kañoi ta danbafa bazan ugari! Ondoren moro, terzio ta militar maitsufak irugaren aldiz ekin diote aufera. Pando ta Olivares aftu nauean... eguerdi aldia zan eta ederki ikusten genduzan nola zijuazten.

Ekin diogu tiroka. ¡Ura otsa! ¡Aixa atseratu beafa izan zuten al-zuanak! Ilotzik ¡befeun gelditu ziran eta...!

Ufengo egunean euren gudari bat guregana etofi zan, eta berak zion gure alderdiko tiro ots izugafiak galdu zituztela. Gañera komandante bat eta tenientea ere erail omen genitugun.

Posesiyo ontan "Afasate" lagundi koak eta au Aitz-Zofotz'kuak giñan.

Beste aldetatik bereala Pando alderago beafa izan zuten Anajategi ta Jaizkibel lagundikoak.

Jaizkibel'ek ildako bat eta bi zauritu ditu. Beste guzjok ondo.

卐 卐 卐

Emenguak'txora biotzen daude gure laguntzaz, baña gu...

Ilabete luze iraun eta orraindik aufera gaz, eta oferatzeko gogo bizia daukagu.

Uzte det aurki gerala of zuekin, eta aurki afte. Azkeneko idazkia izango da nere au Asturias'tik, eta oferatzian alegiñduko naiz asko befiak ere idaztен. "Gu beti Langile ta guzia euzkera gure izkuntz maitalea gorengo malan epintzearen.

Agur ba, ta jaxter afte.

EGUZKI.

Amayur'ko gudaria.

# Larogeitamar italiar jausi dira

Madrid.—Erkaldafak atzo bakea eguan eta, arafiegun eurondu ebezan sailak guda-tokiz ta guda lubanez gertetau jardun dabe.

Egazkiñak paxisten kañoi talde bat suagatu ta apurtu eben eta kañoi ofeitan egozanak espe artu ebezan.

Jarama'n efi-aldezleak paxistak guda-luban batetik kendu egin ebezan eta guda-lubanoi eurondu.

Guadalajara'ko guda-oiñetan guztira larogetamaf italiaf espe artu dabez.

64

## ATZERRIKO IZPARRAK

# Amerikaŕak bear diran bai menak emongo ditue osagille gexozañak España'ra juan daitezan

## Italiaŕak "motz" geratu dira.-Bruselas'en inguruetan rexistak zarataka.-Frantze'ko itxas-ontziak kontrola egitera.

ITALIAŔAK "MOTZ" EGIN DABE

Madrid.—España'ko auzian "motz" egin dabe italiaŕok guztiak ikusi izan dabenez. Italiaŕak emon dautsen ostikada oŕek aldetuko ete dau Mussolini edo zer egingo ete-dau?

Italia ez dago gertauta gudarako, urea ta len gaiak palta yakoz ta. Ure ta lengaion-bila dabil Abisinia'n eta España'n.

Paxisten, Batzaŕ Nagusia'n Italia'ren dira goraberak astertu ebezan eta luŕ jota egoala konturatu ziran. Diruz laŕi dabiltz. Paperetako cuneko 27 liren ure-orderik ez dauke.

Laŕi oŕetatik urteteko bide etsi eban Abisinia. Graziani'ren zigoŕak -zigoŕ Abisinia'rik oindño ez dabe menderatu.

Abeŕi oŕetako aberastasunekin zerbait egingo ebela uste eben. Artietan Italia gozez ta laŕi dauka Musolini'k.

Orain España'ra begira jaŕi da ta España askeratu dau galbidetik urteteko bete-beteko. Oraiñarte italiaŕak izan dabezan laŕiak, españaren lepotik bareizea nai dau.

Hitler'ek "koipea baiño kañoiak naiago doguz" esan eban eta orain Mussolini'k Hitler esakunoi beroren-duaz auxe ezaŕi dautso: "gudontziak galdu ez daiguzan artean... jaingo dogu."

Italia'ren aŕokeri ausarditsuok Frantzia'rentzat eta Italia'rentzat bilduŕgaŕi dira. Batez, be, Italia Alemania'kin alkartzea bilduŕgaŕeiago da.

Italiaŕak Mañuekos'en eta Baleares'en erdian Gibraltar dabela egotea, Nabaŕa'n eta Huesca'n guda-tokiak egitea. Turkia euron lagun egin nai izatea, Dodekanaso'n gudontzi gordelekuak egitea ta India'rako bidea zaŕatu nai izatea Inglateŕa'ri bilduŕgari, be, bilduŕgaŕi yakoz.

Frantzia'k eta Inglateŕa'k gauza guzti oŕein baŕi dabe. Ba-dakie España'ko gudeak zeiñen gaŕantzi aundia daukan.

BAIMENA EMANGO DUTE

Washington.—Ainbat eskakizun eta saŕe-idazkiaia erantzunaz, "osalari, gaixozain eta ostontzeko osagile-laguntzaile guztiai" España'rako joan -agiriak aztertuko dizkiela iragaŕi zuan atzo Estados Unidos'etako Gobernuak, Lateŕi'ko Idazkaritza-bidez.

Zerbait lagundu-asmoz, eta guda -oiñetara joan beaŕ ez zutenai, S. R. I.'k eskatu ezik beintzat, Lateŕi'ko idazkaritzak aspaldion ez zion nai iñori joan-agiririk eman nai, eta Idazkariak jardun eta jardun egin ondoren, orixe biŕe izan da agiriok aztertzeko erabaki ori. Oraingoz, luŕalde ontan eratuta dauden osalari ta osalari-laguntzaileak joan al izango dute. Lateŕi'ko Idazkaritza'k, baiña, atzoko azalpenean, España'ri laguntzeko eskua luzatzeko eskatu zion amerikaŕ eŕiari. Estados Unidos'etako C. R. bitartez lagintzeko.

Oŕatio, españaŕ erkaldaŕen aldeko asko ta askok bialdutako asaŕe-idazkiak bide, Lateŕi-moŕoiak, ixilean beŕere, auŕeko erabakia aldatu beara izan dute. Eraŕia aldatu beaŕ oŕek baditu beste bi zergati ere. Roosevelt lendakariaren agindua bata: legezko osalariak, España'ratzea, azke izango zutela. Gezuŕ-nastea bestea: Roosevelt'en jokera ta ez batera ta ez bestera sartzea, españaŕ paxistaŕ asaldariai laguntzeko baiño ez dala izan.

Estados Unidos'etako "Nation" aldizkingiak, epaila'ko amairugaŕenekoak, idazkola bertako idazlan bat argitaratu zuan, "Lateŕi'ko Idazkaritzak Franco'ri lagun egiten ote", eta azkenengo ileotan Washington'en jaulki izan diran aolku ta gezuŕ pila aitatu zuan.

C. R. I.'k españaŕ erkaldaŕai lagundu izan dienen eta laguntzeko asmorik duanen zuŕu-muŕurik ere ez ei-du gaiñera, agertu du.

KONTROLA EGITEN

Paris.—"Le Fantasque" apurtzaleak Galizi alderantz urten dau.

Beste torpederu aurkako bat eta bost torpederu gertu dagoz agintzen yakenean urteteko.

### Basetxe entzutesuak



*"Usperetxa-jauregi" deritxon basetxe ospetsua dozue au. Ementxe jay o ziran Enbeitaŕak. Kepa, Euzkadi'ko uŕentxindoŕa; Imanol, gure etxe onetako idazle zintzo bezin azkaŕa; Sabin olerkaria, "Txindorkumea" izen-ordiaz idazten dauskun idazleme argia... ¡Basetxe ospetsua auxe abeŕtzaliontzako!*

### Eta eurena dala diñoe!

## Addis Abeba'tik gudari talde ugariekin izan ezik ez dira ataraten italiaŕak

Paris.—Graziani efege-ordea ilteko asmoz esku-suagak bota ebezalako, abisiniaŕ talde aundi il eben italiaŕak; zigoŕ oŕek apur bat ikaratu ebazan Addis Abeba'ko abisiaŕak, baiña ortik kanpora abisiniaŕen artean italiaŕenganako gofotoa geitu egin da.

Graziani'ri esku-suagoi jaurti eutsen lekuan eskuratu ebezan berogei abisiniaŕ auzipetu, epaitu ta il ba-ebezan bakaŕik, abisiniaŕen artean italiaŕenganako gofotuoi ez ei-zan edu-oŕetan geitu ta zitalduko, abisiniaŕen baŕi ondo dakienak diñoenez.

Jazokun ori aiŕikulu artuta, eundakaz ta eundakaz abisiniaŕak erail ebezan baiña italiaŕak.

Graziani'ri jaurti eutsen suageak etxe bateko sapai ertza jo eban eta orixe jo ebalako bizirik geratu zan efege-ordea. Leŕ-egin eban baiña ta Graziani'ri ogetamazaspi zauri egin eutsozan eta bere oncoan egoan Liotta gudalburuari ankea ta begi bat kendu eutsozan.

Orain italiaŕak Addis Abeba'tik gudari -talde mardulekin izan ezik ez dira ataraten eta euriteak Abisinia'ko bideak eragotzi dagiezanean eta gudariok ibiliz ezin daitezanean abisiniaŕok Addis Abeba'ren aurka ekingo dautse.

Euriteak eramanekaŕiak gaiztu dagiezanean, janari-aŕiak jo dagizanean, Addis Abeba'ko gudarj-taldeak gitxitu egin beaŕ izango dabez ta uri-inguruetako uritxoak zeaŕ ezingo dira ibili gudariok eta uŕitxu oŕetan, be, izango da orduan gosea ta laŕia.

Gobernu'ko langile ta otseiñak euren "efeziñoa" dauke ta eŕitaŕak, be, janarituten gaitz izango dabe; okelarik iñork ezin jan daike ez dago-ta.

Abisinia'ko lugiñak italiaŕak eurondu dabezan eŕietatik uŕun dagoz ta, azoketara ez dakaŕe ezer, erbestetaŕak esaten dautsen salneuŕietan saldu beaŕ dauz gauzok eta.

Janariz uŕi dabiltz italiaŕak dagozan uri guztietan ete uŕialdi ori ezin atondu daike, uri oŕeik ornitzeko janariak Barbera ta Zeyla'tik eruan beaŕ dabez-ta; portu oŕeitatik janariz uŕi dabiltzan urietara beti ezin eruan daikez janariak.

## Euzko gud -oñetan

Iradan egun bi oneitan ez da gorabera aundirik izan Euzkadi'ko guda oñetan.

Igandez, itxasaldean, gure artileriak ederto jardun eban eta Ondaŕoa gaiñeko basetxe bat, paxistak eukena, austuta utzi eben. Alde oneitan, gizonezko bat eldu zan paxisten igesi, Ondaŕoa'tik.

Eibar'en gudari aldra bat etsaien ezietaraño joan zan goizean goiz ilunetan, eta batzuk il eta besteak alde egin eben bilduŕez; guretaŕak eŕekete bat atxilotu, eta izkilazkaŕ bi, ta sei pusil artu ondoren, euren lekuetara itzuli ziran.

Atzokoan, Gipuzko aldeko oñetan ez zan esa'eko lako zaŕapaŕik izan. Markiña'n kañoiak ekin eutsen. Paxisten egazkiñak paperak botaten jardun eben, baña Elorio'n bonba batzuk be jaurti zituen, eta agure bat il.

Beste oñetan, aipagaŕirik ez.

## Igandea ta astelena

# Españar gobernuaren egazkinlariak paxisten iru egazkin lurreratu zituezan igandean.-Laterri Batza'ri egindako oarra belu eldu zan Miaja kenerala guda-oñak ikusten.-Beste izparrak.

ITXASO TA EGAZKIN-ARAZO ZAINGO'KO ARDURADUNAREN GUDA-IZPAŔAK

Valencia.—Arduradun oŕek igande gabeko amaŕetan izpaŕ oneitxek emon eban zan.

"Gaur goizez zortzirak eta laurenetan, Madrid-ondoko egazkin-zelaitik Guadalajara'ko guda-oiñetako paxista-taldeak suagatu ta suizkilutzekotan egazkin-talde bat atera zan. Trijueque ingurura ziranean paxisten bost "Heinkel" idoro ebezan eta buŕuka asi ziran. Erkaldaŕ egazkin-talde buruok "Heinkel" bat jausiaz uala ikusi eban, laŭa egoan eta num jauso zan ikusi ez ebenaren. Buŕukea olan amaitu ostean, egazkin-talde oŕek 84'gn. kilometro inguruan bitxabalaren eskumaldean egozan gudari-taldeak suagatu ebaran. Eskeraldean beste talde batzuk, be, suagatu ebezan. Paxisten egazkin-aurkako kañoiak jardun eben egazkiñoi dunbadoska baiña ezer ez eutsen egin eta egazkiñok euron zelsira ziran.

Amaikak minutu bi gitxiagotan urten eben aelai oŕetatik ostera be, ogei egazkiñek eta len suagatu ebezanak suagatu ebezan baŕiro. Ezeren okeŕik izateka biŕ tu ziran atzera.

Amaŕetan Guadalajara'ko guda-sailetan paxisten egazkiñak agertu zirala dei egin eben. Erkaldaŕen "eizakoak" atara ziran eta suagaketarako "Junker" eta "Fokker" egazkiñak "Fiat" "eizakoz" inguratuta idoro ebezan. Buŕukea asi eben eta beingoan eratxi eben "Fiat" eizako bat eta "Fokker" suagaketarako beste bat nekez eta lorez lureratu zan bertan."

ESPAÑA'KO ERKALDAŔ GOBERNUA'K LATEŔI-BATZA'RI OAŔA

Ginebra.—España'ko Erkaldaŕ Gobernua'k Guadalajara'ko guda-oiñetan gitxien gitxenez 30.000 italiaŕ gudari dabilzala paxisten-alde aitzen emon dau.

Zaintzen dabiltzan aikikuluz italiaŕen eta alemandaŕen gudontziak gabaz Barcelona ta Valencia suagakatuko dabezan bilduŕa daukela be, adieraso dau Gobernu oŕek.

Lateŕi Batza'ko idazkari nagusiak España'ko erkaldaŕ Gobernua'ren idazki-oŕen baŕi emon dau.

GUDA-ZAINGOA'K EMON DAUZAN GUDA-IZPAŔAK. — IGANDEZ

Madrid. — Igandeko gabeko amaŕetan Madrid'go Guda-Batza'k guda-izpaŕ oneitxek emon ebazan:

"Erdiko guda-oiñetan.—Jarama inguruetan eŕi-aldezleak ondo zapustu dabez paxistok eta guda-tresnaz guztia ondo orniduta aurera egin naian asi ziranaŕen, ezer ez eben lortu, eŕi-aldezleak eutsi egin eutsen eta.

Guadalajara'ko guda-oiñetan guda-ekiñaldietarako beran-berarizko dan guda -toki bat eurondu dabe eŕi-aldezleak. Eŕi -aldezleak eraso gogoŕa emon eutsen asaldariori, galtze aundiak sortu ta ogeitamaŕ italiaŕ gudari espe artu.

Inguru guzti oŕeitan paxistei iges egin dako asko etoŕi dira erkaldaŕengana.

Erkaldaŕen egazkiñak aren saiŕak ikusten eta suagatzen ibili dira. Paxisten egazkiñekin bat egin eben eta paxistok buŕukatu beaŕak jo ebezan eta iru egazkin eratxi eutsezan paxistoi erkaldaŕen "eizakoak".

Beste sailetan lengo senean."

MIAJA GUDA-OIÑAK IKUSTEN

Madrid.—Eŕi-Irakusketa Zaingo'ko Arduradun Hernandez jauna lagun ebaŕ Madrid uŕeko guda-oiñak ikusten juan da Miaja gudalburua.

Ori dala-ta izparlariak eguardian ezin itsik egin izan dabe, oi dabenez.

GOBERNUA'REN OAŔOI BELU ELDU ZAN

Londres.—España'ko Erkaldaŕ Gobernua'k "Foreing Office,'ri, onek "Ez sarzeko Batzordea,'n emon egion bialdu eutsen oaŕa, azkenengo batzaŕerako belu eldu zan.

España'ko auzian italiaŕak tarteko dirala agertzen dau oaŕ oŕek argi ta garbi oŕeitariko autuetan aituak diranak diñoenez.

Prantzia'k eta Alemania'k ba-dakie ori ta España'ko gudea España'ko aztakasunaren bakaŕik ez dana, eŕi guztien azkatasun eta burujaubetasunaren baiño.

EGOALDEKO GUDA-OIÑAK

Pozoblanco.—Gudan adoretsu diñardue Euriak-euri dira-ta auŕerakad aundirik ezin egin daike.

Hinojosa ta Alcarralejo'tik asi dira gudaloro bi Villafranca erdian artzeko asmoz. Gudaloro biok alkartu daitezanean artuko dabe uri ori.

Eŕi-aldezleen sungalariak suagatu dabe Villafranca ta paxistak urioi ustu egin dabe, 10'5'ko kañoi bat, be, kendu-eragin dautse paxistoi. Auŕera egin eta urioi artzeko aukerearen zain dagoz.

## CATALUNYA'N

# Guda oñetako agiriak.-Guda-baŕuan sendo ta bulartsu sartzeko artu diran erabagiak gaŕ bizia sortu dabe.- Beste izpaŕak.

ARAGOI'KO GUDA OÑETAN

Barcelona.—Aragoi'ko guda oñetan dabiłan "Durruti" taldeak igande iłuntzean emoniko agiriak auxe diño:

"Gaur goizean paxisten egazkiñak Perdigueras'ko guda oñetako esiak suagatu nai izan ditue, egin diran gogoŕketak egiako ainbat lagundu daben gure bateriak jo nayean.

Paxisten beruna, baña, basamortuan galdu da, gurariŕik bete barik.

Begiraleak iłuntzean urten eta euren tokietara zindo eldu ziran.

Ebro'ko guda oñetan pusil-sua, ondoren barik.

Beste guda-oñetan aipagaŕirik ez."

ASTELEN GOIZEAN

Barcelona.—"Auñamendi,'ko artileriak Orta'ko geltokira jaurti eban eta arerioen artileria atzeratzera biartu.

Beste guda-oñetan aipagaŕirik ez."

GENERALITAT'EKO AGIRIA

Barcelona. — Generalitat'eko guda -arduradunak atzo iłuntzean emondako agiriak auxe diño:

"Auñamendi aldean: Artilerianen jo aldiak. Tren bateri geratu eragin eutsen.

"Ascaso" taldearen tokietan: Ikuskari taldeak arerioenak jo ta iges eragin eutsen. Iru gudari etoŕi ziran gure aldera, izkiłuekaz.

"Durruti" taldearenetan: Auŕetan dagozanen artean tiro-ots ugari. Arerioak iges."

GAŔ BIZIA

Barcelona. — Guda-baŕuan sartzeko artu diran erabagian gaŕ bizia sortu dabe.

Radiotik dei auxe egin da: "Guda -legea bete daben guztiak eta esku -bonbak jaurtiteko gai diranak ainbat ariñen Generalitat'era juan beitez, bereala guda-oñetarako urteteko. Kondiziño oŕek bete ezik ez alpeŕik aurkestu."

EŔITAŔ GUDARIARI

Barcelona.—Gomez Hidulgo, Union Republicana'ko diputadua Generalitat'eko lendakaria ikusten izan zan eta beragaz batera eta Tarradella jaunagaz eŕitaŕ gudariaren omenez egin dan oroiaŕira juan zan.

Jai onetara gudarostetako egintaŕiak eta jente ugari batu ziran.

"Eriotzako gudaloroak" omen egin eban.

Companys eta Tarradella txalotuak zan ziran.

## Rusia'k eztau nai iñoren luŕik. Rusia'k bakea nai dau.

Ginebra.—Lenen-gaietako guzia erabakitzea dagokion Lateŕi-Batza'ko Batzordeak egin zuan batzaŕean, Rusia'k ez duala irabazpiderako iñoren lateŕiko luŕik eztaŕen ez ta lenen-gai ugaridun iñoren luŕalde jabe egiteko eskubideŕik ere eskatzen, esan zuan Rosenbloun eŕusitaŕ jakintsuak.

Bakearen aldezko zabalkunde egokiagoa bakaŕik eskatzen du Rusia'k eta bake-aldez jokatzen al duan bestez lagumtzeko gertu dago.

Rusia'ko jaurgoko eriketa edo politika ta sobietdaŕena besterik dira, Sobietdaŕak Tgarist'eko petroleo ta emandako zugaitzadiak itzuli egin dizkio iraniaŕ eŕiari.

Tgarist'eko lenagoko jaurgoak indaŕez lortu nai izan zituan eskubideai, Rusia'k, bere gogoz, eskutik utsi egin ditu.

Rosenbloun'ek dionez, euren buruari "lander" iritzi dioten latefiak, saleroske ta zoŕak ordaintzeko dirurik ez dutela -ta, negaŕez eta ileta lotu dira. Mundu guztiak daki, baiña, geroko gudaterako kañoiak lortzeko naikoa eskuarte dutena. Lenengarik ez dutela, salerosketako zoŕak ordaintzeko beste egin lortu dutela dasaten lateŕi oien negar eta ileta Batzordeak ez liekela, jaramonik egin bear esan zuan Rosenbloun'ek, Lateŕi oien eŕiketa edo politika gaitik zian-ezik beintzat, ez diela jaramonik egin bear.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK

**GORBEA Y C.ª**

41'gn. Alameda de San Mamés (txaldian)

11447 Ufutizkiña

NASTE TA ZARATA UGARI

Bruselas. — Bruselas'en ingurutan zarata ta naste ugari egon zan igandean "Nation Belge" izpaŕingiak diñoanez irureun paxisten-arerio rexisten itzaldi bat egiten zan aretoan sartu eta ainbat lagun zauritu ebezan.

"Le Temps"en jardunak

# Europa'ko eŕiak gudarako gertuten.-Ariñeketa bizian gudarosteak geitu, ugaritu eta orniduten. - Noiz amaituko ete da izkillu geitze - ariñeketa ori? - Beste izpaŕak.

"Le Temps" izpariñgiak idazlan baten Europa'ko guda-gertakisunen barri damosku.

M. F. Bernier'ek diñonez "Guda-izkillu gitxitzeko" Baizara 1932'gn. egin zanean eta bake denporan Europa'n 3.200.000 gudari genduzan eta 1936'gn. ostera 4.500.000 gudari; ofa zeinbat geitu diran Europa'ko Gudaroztean.

Geitze ori Alemania'ko, Rusia'ko ta Italja'ko gudari geitzeak sortu dau batez, be. Alemania'n bakaŕez 1932'gn. ezkero 700.000 gudari geitu dira.

Begiratu daigun Rusia'ra. 1934'gn. 560.000 gudari eukazan gudaroztean; 1935'gn. 940.000 gudari ta 1936'gn. 1.300.000 guda-gizon.

Ofez gaiñera gudari - gertakizunak irakasten dabezan "Ossaviakhim" izaneko batzan 14.000,000 gizon dauz bere ardurapean. Gizon ofeik gudarako dira.

Egazkiñei, be, begiratutxu bat egin dagitsoguen. 2.700 egazkin doguz Moscu ofetan; 370 taldetan bananduta doguz; itxasoetarako, be, ba-dauz egazkin bereziak, 250 izan, be ta 40 taldetan bananduta. Siberia'n 80 egazkin taldetan 500 egazkin dauz.

Ola berezietan guda izkillu ta guda-tresna guztiak egiten dabez ta Rusia'ko Gudarostea ondo orniduta dogu.

Getozan Italia'ra. Gudaroztea'n eusten naiko zeregin eta lof dabe. Lufeko Gudaroztea'ri eusteko 1934-1935 urtean 2.032.000.000 lira eralgi ebezan. Itxasoko guda indaretan 1.224.000.000 ta egazkin eta egazkin gudariei eusteko 720.000.000. Guztira guda arazo ofeitan 3.976.000.000 lira eralgi ebezan.

1935'dik 1936'gn. eralgi dabez lira 4.564.000.000 ta 1937'gn. eralgiteko lira 4.805.000.000 dabez.

Inglaterra erdi-lo egon da baiña eraintxe esnatu da. Oraintxe bene-benetan ekin dautso.

3 urtean 113.711.000.00, 137.106.000.000 ta 168.511.000.000 libra esterlina eralgiko dauz guda-arezoetan eta gertakizunetan. Dirutzok geituaz juango dira.

Zer urtengo ete da olako gertakizunetatik?

* * *

Beste batzuk, be, esnarik doguz. Artzen dauzenen irutik bat Polonia'k guda-gertakizunetan eralgiten dau.

Txekoeslobakia'k 7.000.000.000, ostingo dira izentatuekaz gaiñera eralgiko dau. Yugoeslabia'k guda-gertakizunetarako dirutzak geitu egin dauz euneko ogeitabian.

Rumania'k 1935'gn. 6.162.000 leis ta 1936'gn. 8.033.000 eralgi dauz. Suiza dogu Lateŕirik bake-zaleen, onek ez dau gudarako dirutzarik geitu.

Ofa Europa'ko bake-zaletasuna.

Amerika'n Lateŕ-Batua'k 985 miloi dolar eralgi dauz igaz ta Japon'ek eralgiten dauzan dirutza guztien euneko 45,7 gudarako eralgiten dauz.

Zer itxaron daikegu ofen sugaŕi asko dagon lekuan? Txinpartik jausi edo sortuko ba'litz...

# EUZKEL IZENA

Axpe eta Zubia'taŕ Simon eta Madinabeitia'taŕ Pantzeke'n sendia euzko gudari beŕi batekin geitua izanda Durango urian eta ugutsaueran "Andoni" euzkel-izena jeŕi dautse.



# Maite gaŕetan...

(M'taŕ A'ri biotzez)

Maite - gaŕa...!! Batzuk bestetzuk baiño biziagoa, batzuk bestetzuk baiño samuŕagoa, baiña izan guztiak dabe maite gaŕoi baŕuan.

Gizonak biz-izpirik dauar-arte diraun maite gaŕoi zerk sortu dau edo nundik yatorku?

"Ad imaginem et similitudinem suam" gizona egin eban alde guztietatik maite-gaŕa dario Jaungoikoa'k eta Jaungoiko ofetxek ezaŕi eutson gizonari maite - txinparta bere unetan. Eta txinpart ofek sortu daben maite gaŕoi amatau edo itzal-eziñ dogu.

Ba-ekian Jaungoikoa'k zeren beaŕa izango eban gizonak.

Guztiz ondo ornidu eban gizonoi; gizonoŕi beaŕeko yakon ezkero maitasuna, maite txinparta, be, ezaŕi eutson. Jatoŕizko dogu maite gaŕoi. Maite-gaŕoi txaŕa danik ezin esan daikegu. Ondamendi edo zorionbide izan daikegu. Berenez txaŕ ez dogu.

Zoronbide izango yaku maite gaŕoi, Jaungoikoa neuŕi ba-dogu ta adimena zuzendaŕi.

Autuoi arakatu daigun.

**JAUNGOIKOA NEURI**

Jaungoikoa'k egin ginduzan eta beretzat egin, be. Beretzat egin ba ginduzan. Berenaga juan beaŕ dogu. Beraganatzeko bidea Jaungoikoa'k berak irakatsiko dausku.

Nora juan beaŕ daben dakianaŕen, era daben lekutik duana, elburu ofetarako ete da?

Ludiko maitagaŕiak Beregandik atendu geugizan ez euzan egin, Beragana eruan gengientzat baiño.

Ludiko maitagaŕi guztiak Beragana tzeko bide izan daŕdiguzanaŕen, beti ez yakuz izaten. Ofa korapiloa, ofa gure galbidea.

Maitagaŕiok galbide izan ez dakiguzan zer egin baiña? Jaungoikoa'ganatzeko bide izan daikiguzan neuŕiz maite izan. Neuŕi ori Jaungokoa'k berak darakusgu adimenaren bidez.

**ADIMENA ZUZENDARI**

Adimenak irakusten dausku bide bakotxak nora garuakezan. Gabiltzan berofen argi izpitan, eta adimen esanoi esaneko izan gayakuezan, zuzen goazalakoa okeŕ juan ez gaitean eta pendizetan jausi ez gaitean.

Jatoŕizko maite-gaŕtxuoi, ezagutzeak pizten dausku. Egazutzeak zerbait zeinbat eta argiago erakutsi, ainbat eta maite-gaŕoi biziago, iraunkoŕago izango dogu.

Jaungoikoa danez ezagutuko ba-genduke, alabeaŕez maite izango genduke. Ezagutzea onaŕi ez daben maite-gaŕa bizi ta iraunkoŕa ezin izan daike.

Gure maite gaŕoi ujoldearen gisako dogu. Edozert ezin eutsi daikio; gaŕ ofek edozer efe daike. Jaungoikoa'gan bakaŕik bete daikegu. Maite gaŕak sortu dautson maite-egaŕioi Jaungoikoa'gana asetan ez ba-dau, itufirik-ituŕi asiko da gure maite-egaŕidunoi.

Maite-egaŕioi ase naj ta ase ezin, adimena lausotuta, zentzur-argitan asiko yaku maite egaŕioi nun ase bilatzen. Zentzumen esanetara itzuliko da ta zetzuner-argitan ibiliko da.

Auxe dogu maitasunik kaskaŕena. Zentzun utsen esanak eta argi bristadak oñaŕi dabezan maitasun ori aldikoia ta aldakoŕa yatzu, ene irakurle. Egaŕi-itote unetxuen ostean gizona aulduta, gogaituta isten dau.

Adimen ezagutzez pizten dan maite-gaŕak irau dagi, berogaŕi da ta jaraibide. Zentzumena oñaŕi daben maite-gaŕa su-boladaren gisako dogu. Berorik ez dau; argioi baterakua ta biziegia dogu. Ezer erakusteka, itxutu egiten gaitue zentzunak.

Eta bristada ondoren maite-gaŕ ofek iluna, negaŕa dakarskua. Dana dakusgu itun. Eta geu gara itun gaigozanak.

Zorabiatu egiten dauz ta beste gauzak itunak diralakan, geu gara itunok, geu biurtu gaitu ilun zentzumenak piztu dauan maite-gaŕofek.

ARETXIÑAGA.

Igandea España'n

# Jarama inguruetan paxistak biziera, guztietako armekaz joten, baña auŕerariik ez. Iru joaldi, bata bestearen ondoren. - Miaja jardunean. - Beste izpaŕak.

**IGANDEZ MADRID'EN IZAN ZIRAN GUDA-EKIÑALDIAK**

Madrid.—Igande aŕatsaldez Jarama'ko guda-oin inguruetan paxista-taldeugariak ikusi ziran. Guda-tresnariknaiko agertu eben asaldariok; eŕi aldezleak kontuan jausi ziran eta suagalariak suagak-suaga jaurtzen ekin eutsen ordu biren buruan. Asaldariok baiña joaldia asi eben.

Tanke ta guda-burdiak aurean ebezala, eŕi aldezleen guda-lubanetaruntz asi ziran. Tankeen-aurkako eŕi-aldezleen kañoiak eta dinamita jaurtzaileak baiña auŕerarik egiten ez eutsen laketu.

Orduan paxisten guda-burdi ta tankeen atzetik atara ta oiñezko ta zaldezko paxista-gudariak ausarditsu ekin eutsen.

Paxiston suaga ta suizkilubizkofen jartzaldi zaŕatuakaŕen eutsi egin eutsen eŕi-aldezleak. Baŕiren baŕiz joaldi biziagoa asi eben paxistok lenengo artenaldian ezer ez ebela loftu ikusi ebenean. Onantxe jaŕdun eben ordu biren buruan. Eŕi-aldezleen suagalariak baiña jaurti ta jaurti ez ziran geratu.

Zaldizko-gudariak ufera bota ta iragaŕen ekiñaldia as eben paxistok; iragaŕen ekiñaldioi ez zan izan baiño nengoak baizen zakara; ostikada galantak aftu ebezan lenengo urten-aldi bietan eta.

Eŕi-aldezleak paxisten 40 gorpu baiño geiago jaso ebezan. Zaurituak, be, aftu ebezan erkaldafok.

Guadalajara-ipaŕaldean, be, bizi gudatu dira. Trijueque'n urioi zaintzeko eŕi-aldezleak dabezan guda-lubanak eurendu nai izan ebezan paxistak. Joaldi ofek, baiña, motz-egin eutsen paxistoi ta erkaldaŕ gudariak tankeak aurean zituela Valdearenes ingurureg-iño eldu ziran.

Auŕera asi-orduko pusilekin eta suizkilubizkofekin zapustu ebezan lenengo paxisten guda-lubanetan egozanak. Gero guda-lubanak menderatzeko asmoz atara ziran eŕi-aldezleok euron guda-tokietatik eta paxistak egozanetaruntz asi ziran. Anka egin eben paxistok gudagai ta guda-tresnak jasoteko, be, asi bage. 31 italiaŕ gudari espe aftu ebezan eŕi-aldezleok.

Ekiñaldi onetan adoretsu jokatu eben eŕi-aldezleen suagalariak.

Eŕi-aldezleon egazkiñak, be, naiko zeregin izan eben. Eŕi-aldezleon "ei zakoak" be betik ibili ziran eta suizkilubizkofekin paxisten aftean miestu ederа egin eben. Beste egazkiñak paxista-taldeak banandu ta guda-tokiak apuŕtu ebezan.

Paxisten egazkiñak, be, agertu ziran eguerdi-ostean eta Guadalajara ta Alcala de Henares suagatzera uzaala esan eikean. Erkaldaŕ "ejzakoak" bideratu ei-yakozean paxistenoi ta alkafekin buŕuka ekin ei eutsen eta paxisten suagaketarako iru egazkin eratxi ebezan. "Fokker" izeneko beste bat, be, eratxi eutsen.

**MIAJA'KIN BAFIKETAN IZPAŔLARIAK**

Madrid.—Eguardian Miaja jaunakin egon ziran izpaŕlariak eta izpaŕ berezirik ez eukala ta baketan egozala esan eban.

Iluntzean, be, egon ziran izpaŕlariak Miaja jaunakin ata auxe esan eutsen:

—Gobernuak erabagi dabenez Gobernu'ko ministro bi, beti egongo dira Madrid'en, Guda-Batza onekin bat eginda.

Orain Eŕi-Lan eta Irakasketa Zaingueta'ko Arduradun Just eta Hernandez jauna dagoz.

Guda-ekiñaldi buruz jardun eban gero ta auxe aitzen emon eban:

—31 italiaŕ gudari daukaguz espe aftuta. Guda ekiñaldiak ondo duaz.

# Euzkotar Umien Aldez

## Umearen eŕugetasuna

I

"Ene jaungoikoa, gorde ume txiki au, aizetan ostro bat gorde oi dezun bezela."—Francis Jammes. (Ume bat il ez dedintzat otoitza.)

Bilduŕ naiz gauŕ esatera noan gauza batzuek batek baño geyagok gaizki aftuko ete dizkidaten umeen eŕugetasunari buruz.

Gurasoŕ guztiok naj degu geure umien eŕugabetasuna iñoiz ez galtzea, obenik egin-gabe beti irautea, baña auxe da ezin izan leikean gauza bat, ludi onetan gajztakeriak burua jazo aldezan bitaŕtean.

Era bitara jokatzen dute gurasoak gai onetan. Bai dira gurasoak ain zabaŕak, ain arduragabeak, umien aurean edozer gauza esan eta egin oi dutenak. Gurasoŕ abek ez dute ulertzen umeak euren itzakin galdu leikezanik eta umien arimatxoaren gañera orban zikin bat botatzen orban zikin bat lotatzen dutenik. "Txikiak dira ta ez dute ulertzen" esan oi dute.

Umeak ordea, ulertzen ez dituan itzari yaramon geyago egin oi dio, eta gogorapen sendoa duan eskeroz, beti gogoan erabiliko ditu itz eta esakera ayek, egunen batean (orduzlen geyenean) zer esan nai duten jakin afte.

Gurasoŕ oyentzako esan zuan Josu Kristo gure Jaunak: "Madarikatua Ni'gan sinisten duan umetxo abetakoŕ bati galdubidea erakutzikoŕ dion gizona. Obe izango leuke, efota afi bat lepotik lotuta itxasora botakoŕ ba'lebe, umetxo abetakoŕ baten arima galtzea baño."

Ofelako guraso kirtenetzaz ez daukagu beste zer esanik; Jaungoikoak esan zuana naikoa da ta.

Bai dira ordea beste guraso batzuek alderantzira jokatzen dutenak. Abek, umeen aurean ez dute iñoiz-ez-iñoiz beaŕ ez dan gauzarik aitatzen; ardura aundia aftu oi dute umeen aurean lasaikeri txikienik ere ez egiteko. Jakin dakite ba, umearen begi ta belaŕiari itzal aundia zor zaiotela eta umearen arimatxo garbia Jaungoikoaren arpegia ikusten dan izpiliu edeŕ bat dala!

Baña guraso abek geyenean beste akatz bat dute. Umeak eŕugabetasuna ez galtzeko, bere aurean ezer ez esatea naikoa dala uste izaten dute. Guztiz okeŕ daude gauza oferi buruz. Oben aizeak alde guztietatik putz egiten digu, obenen kiratz aftean bizi gera, obenak burua jaso dagi bastef guztietan, txaideetan, ormaetan, liburuetan, izpariñgietan, gizon eta emakume lasalen itzetan, ikastolako lagunetan, etxeko neskameetan... nun ez?

Augaitik gurasoak ez du loftuko, umeak ez jakiteko ainbeste alegin egin dituan gauzak, lentxoago edo gerotxoago umeak ez ikastea.

Gurasoak ba alegindu beaŕ dute ez umeak ezin izan leikean ez jakiñean beti irautera, umeak onak izatera, umeak gauza txarik ez egitera, umeak euren arimatxoa (orduz len batez ere) obenakin ez zikintzera. Eŕugabetasuna ez baita ezjakintasuna, obenik ez egitea baizik!

Gauza jakiña degu gure umeak ikusi ta entzun beaŕko dituztela, gauŕ bizi geran munduan batez ere, aneika ta aneika gauza txaŕ entzun eta ikusi beaŕ ez lituzkienak erderaz "higiene moral" esaten zayonari buruz. Au ordea, guk alegin guztiak egin afen ezin galeraz gentzaken gauza da.

Umea ondo ezi naj duan gurasoak beste bide bateri jafaitu beaŕko dioba: Bide au, umea, poliki-poliki, apuŕka apuŕka, onelako gauzetarako gertatzea da.

Baldin gertatu gabe ba'dago naita-naiez bere gogoan eta bere irudimenean lofatz aundiagoa ta biziagoa egingo dutelako, eta jakimin aundiagoa soŕtu bere barnean gauza oyek.

ARITOKIETA.



# Kokotxak xaltxan

P. Keta "Nacionalismo y separatismo" Euzkadi Roja„'n azaldu zaigu.

¡Ai aspaldiko Keta! Obedezu ixilik egon, gai ortaz beintzat, anka, ukalondoa, ta galtzerdiak sartu baño len!

Beti gai ortaz buruz bera ibili zera, ¿ta orain abertzaletasuna zeŕ dan zu irakasle? ¿Donostia'n beti arerio, ta orain abertzale eskola "maixu"?

¡Bañan Keta! Len "La Voz de Gipuzkoa" aŕan, Donostia'n idazten zenduenian euzkel izenak "Motes" etziran ba? "Nombres ridículos", "Tonterias nacionalistas" ¿zenbat aldiz esan ez dezu?

¡Ori dek aldakuntza ori! ¡Orain zerdek eta "Ahora examinemos el caso de Koldobika".

"Su nombre, en agradable armonia con los apellidos raciales, son netamente vascos".

¡Bai zera, ortan giñan len gu ere! Naiz ta zuk ordun, beste iritxi batekoa izan.

Beste asko bezela, guda etoŕi bear izan da, zu asto gañetik erortzeko.

¡Ala ere, ala ere, noiz baitian afazoi izan bear zenuan, gai ontan beintzat!

Baña guda amaitu, ta beŕiz Donosti'ra juatian, ¡etxera noski lengo antzera astakeriak esaten jafaituko! ¡Ez aldezu lengo lepotik burua izango!

* * *

Euzko Ekintza'koak, bide zuzena daramate oraingo ontan, ¡orla ikusi nai degu beti, Euzko Ekintza alderdia!

Españaŕ alderdiakin egin duenaz, zeaŕu poztu gaitu. Donostia'n "Tierra Vasca", etzan orain Bilbao'ko antzekua.

Zuek Euzko Ekintza'tik ta gu JEL alderditik, erakutsi diogun moia guziko Euzkadi'ren arerioari, gure abeŕia nor dan, zer izan dan, eta azkatasuŕ osoa iriziteko, zer nolako eskubide degun.

Egin gogor ortik, arerio guzik txikitu eta apurtuarte, gure bidezko nai onen aurka badira beintzat.

Zorion leial ta sutsuak zueri. ¡Aufera ortik!

* * *

"Euzkadi Roja" ere, bere erara baño, abertzale belaŕia erakusten zuela, maiz izan degu.

Oraingo txanda ontan, Madrid aldetik edo, España'tik beintzat, "pasamontañas" oitako bat biali diotelako edo, lengo belaŕiak estali dituli dituala, antz ematen diogu.

Lengo belaŕi agertzea, edo oraingo eztaltzea, "Euzkadi Roja„'n oñaŕia zer dan ez dakigu, baño lengo abertzaletasun agerize ori, gainbera duela ¡bai guk igaŕi!

* * *

"Kizkitza" (G. B.) idazlan guziak jaso, ta berak liburu baten bidez argitaltzeko, Donosti B. B.'en asmoa, aufera bidea darama.

Asko dira, arpide ofi beren lagunza eskeñi diotenak, ez ordea danak, abertzale zintzo askoren izenak, arpide ortan ikusten ez bai ditugu.

¡Tira jaunak bultza, bultza guziok! Edo zuek ere, Madrid'era begira zaudete ¿ala?

¿Ta "El Liberal"? Lepo edo gafondo legun garbi batean irtentzen dan zuldar gaiztoa baño okefagoa degu, Euzkadi'n.

¡A ni "censor" banitz, orain baño geiagotan, bere ofi aldeak, kirkir kaiolak diruditela azaldu bearko lituzke!

¿Noticiero bailando galerazi bear litzakela? ¡Gizona, ori, gatzik gabeko kolifora baño, gezagua da ta!

Beste ofi beste ofi zigoŕa, txuriak ezezik faxista antzeko goŕi edo lilak ere bait dira Euzkadi'n?

¡Baziok emen zeŕatz latzaz, zer garbitu beaŕa!

ATAÑENE.

MUSSOLINI GAXOA!

# Italiaŕak Guadalajara'n sartu zirala eta Alcala de Henares artu zutela noiz entzungo egon da iru egun osotan. - Paŕa nasaien atzetik negar ixilla.

Madrid. — Dakigunez, azkenengo egunotan Guadalajara-aldean izan diran gudaketak Italia'n eta Alemania'n ere sortu dute buru austerik.

Iru egun osoz, italiaŕak Guadalajara'ra sartu dirala ta Alcala de Henares ere artu dutela, noiz entzungo, urduri ta iŕikitzen egon da Mussolini. Guda-Agintaritza Nagusiak egun eta orduetaraiñoko guztia izentatuta bait' zeukan.

Urduri Mussolini, eguna ta ordua igaro ondoren, Agintaritza Nagusiak izentatutako eguna ta ordua igaro ta izpaŕen zuŕu-muŕorik ezaz, bere buruaz gogaitzen asi zan egon-eziñez lotu.

Zapponi gudalburuak izentatutako ordua igaro, beste ogej ordu ere igaro ta... ofa noizbait "duce" jaunak "izpaŕa" jaso: "Gofiak egundoko bizien eusten digute-ta, poliki-poliki goaz aurera". Geroxeago, beste izpaŕ auxe: Frantze'rako bidetxabala, geure esku; "gofiak" zituzten egon-leku gaŕantzitsuak artu ditugu.

Ufengo egunez, asteartez, aseratutakoaren aurpegia Mussolini'k. Zapponi gudalburuak, "gofiak" gudari geiago talderatu zituztela ta eraso gofiari ekin ziotela, baiña, eurak, italiaŕak, aurera zegitela gastigatu edo abisatu nonbait Mussolini'ri. Baita zenbat ildako ta zauritutako izan zituzten ere. Onexek aseŕatu zuan gure Benito, ofexek mindu Mussolini. Ufengo egunez, zenbat ildako ta zauritutako ziatz jakin zuanerai, ez zegon goxo-goxo gure mutila. Beretik irtenda, kaiolaratutako pizti antzo, eskubiko eskua okoizean, Gobernu-aldekoak, len galdutako egon-lekuak, beŕiro loftu zituztela jakin zuanean eta "alkandora beltzdun" saildi batzuk estu ta laŕi ziranen beŕi izan, deadaŕ baten asi zan. Naikoa italiaŕ erkaldaŕen esku, prisionero, gelditzea jakitzeak mindu zuan geien iñoiz "Avanti" izpariñgiko zuzendaria izandakoa. Naiago zukean guda-oiñean il izan balituzte eta ez atxilotu: italiaŕ "erugeak" ere "baŕuko" dirana agirian bait dago "orain"!

Egunotan Ciano kondea "duce" 'arekin egon da. "Littorio" saildiko ametraladoretako komandantea atxilotu egin zutela, prisionero aŕapatu zutela esan zion Ciano'k. Ene! Mando-zaiñak ere ez Benito'k jaulki zuan alakorik! Mussolini orduantxe Libia'rakoa artzeko ta Ciano kondeak azken-izpaŕen beŕi eman zion. Izpaŕ negargaŕiak.

—Beste gizon eta gudagai pila bat du bearko ditugu—esan zion kondeak.

—Eta, len bialdutako tanke ta kañoiak?—erantzun zion "duce„'ak.

—Asko ta asko, "gofiak deuseztu egin dituzte, signore (jauna).

Ez zan atsegin Mussolini'ren betarekoa!

Usera'n, Ciudad Universitaria'n, Casa de Campo'n eta Jarama'n alemaniaŕ gudari-taldeak "zuŕa" izan zutenekoan, naikoa paŕe egiña zan Mussolini. "Nik, neure gudari-taldeak bialtzen dituŕanean—zesaion Benito'k bere ogeko buŕkoari—italiaŕ gudarostea bezelakorik ez dagonik, argi ta garbi erakutsiko diot munduari. Bilduŕez geldituko da Frantze, lauoŕian Inglaterra, Belgika'k beste bide bat artuko du ta Rusia bera ere, nere indaŕa ikusita, ikaraz lotuko da."

Leku onean dira Benito'rez bilduŕ-sartze ¡kara-sortzeak!

Balitzake oraingo ontan Mussolini'ren begiok apuŕ bat argitzea. Leoia ez ei-da esaten duten besteko gaiztoa ere. Bai, zera!

Atzoko eguna euzko zaingoetan

# Gaurko janari banaketearen gañera, beste bat egingo da il onen 25'an

## Gaur, oi dan lez, ogia egongo da. - Leizaola jaunaren esanak. - Ontzi bat eldu da gari, urun eta naranjaz beterik. - Ereintzak zaintzeko ordezkariak. - Luŕa lubaŕitzen kartzeletan dagozan politikuak lan egingo dabe. - Beste izpaŕak.

### Lendakaritza

**AGERALDIAK**

Union Republicana'ko Buru-Batzaŕa egin zan atzo lendakari jauna ikertzera.

Beste ikerlariak oneik izan zituen lendakariak burua, C. N. T.'ko Batzorde nagusikoak, Frente Popular'eko Batzorde bat eta paxismo-aurkako gu garosteko beste Batzorde bat.

**GUDA-ARLOAZ**

Lekeitio aldeko gudoñetara gizon bat eldu zan igandean, paxisten igesi.

Atzokoan, goizean, soldau bat eldu zan Baranbio aldetik, asaldarien agintaritzapetik alde eginda.

**FRANTZE'KO GOBERNUAREN BEZUZA**

Euzkadi'ko Jaurlaritza'ri esne batuja pila bat eskeñi dautso Frantze'ko Gobernuak. Bilbao'ko umientzat dijua-ta.

**ESPETXIETAKO JAZOKUNAK ZIRALA-TA**

Jauregi jauna izan zan atzo lendakaritzan, bere arazuazko lanetan.

Urtaŕila 4'gn. Bilbao'ko kartzelatara asaldariak saŕtu eta an egin zituezan galtakeriak argitu eta gaizkiñak zigorpetuteko auzia osotu beaŕ dauan epalea berezia da jaun orixe.

Izparkariak beragana eldu giñan eta azalpen batzun eske asi.

Oraiñarte egindako lanen ondoren 61 lagun auzipe eta espetxera erostea agindu dau. Oneik guztiok, Lafinage eta Angeles Custodios espetxietako gertaeretan esku-artu ebeneko sala kuntzea dabe.

Jazokunok argitu arteko ardura dabela adirazi euskun.

Guda eta Eŕi-Zaintza zaingoetan laguntasun andia izan ditut, iñoskun neure zeregiñau beteteko, ta laguntza ori naitaezko zaja esan beaŕik ez, ara zu astun au burututeko.

### Lag'ntza

**BATZORDE BAT SORTU**

Beaŕ beaŕeko diran gauzen gareztitzeak langileen ogibideari soŕtu dautsen laŕia daja-ta, laŕi ori zelan atondu erabagi naiez buruzuste asko izan dabez Zaingo onetako agintariak.

Arazuoi ondo astertzeko ezin aŕtu eiken erabagi egokirik, erabagi ofen ondoren kaltegaŕiak ekaŕi eikezan-eta. Gobernu'ko burukide guztiak auzi aren baŕi izan egien eta nora jo adieraso egien, laŕunbateko batzaŕean Langintza'ko burukideak azaldu egin eutsen auzioi. Aŕtu leikez zelako erabagiak artzeak, ogasun-sailean eragozpenak izan eikezan eta langileentzat, be, kaltegaŕi izan eikean.

Auzioi erabagi daiten batzoŕde bat soŕtzea erabagi eben batzaŕean. Batzorde ori Ogasun Zaingo'ko Ardura-dunak, Orniketa ta Salerosketa'koak, Osasun eta Langintza Za'ngoetakoak eta iru langile batza muetak osotuko dabe.

Batzordeko izan beaŕ dabenei ordezkariak izentatu dagiezan deia egin dautse Langintza Zaingoa'k.

### Osasun-zaingoa

**"HABANA" ONTZIA, GEXOTEGI**

Idazkari nagusiaz izan genduan zaingo onetan eguneroko baŕiketaldia izparkariok, atzokoan.

"Habana" ontzia gexotegi antolatuteko, etxe askok agertu dauskuez lanen gorabera eta zenbat kostauko diran, lanok, esan euskun Labra jaunak.

Presupuestoetarik asko onirtzi ditugu premiñaskoo ditugun gayak ornidu dagiskuezan.

Lanak asko dagoz eginda, eta ojndixek esan giñei gexotegi ori edefto baño obeto geldituko dana.

**UMIENTZAKO JANARIAK DIRALA-TA**

Umientzako eta gexoentzako janariak garestiegi saltzen dituela dendari batzuek eta, idazki eta salakuntza batzuk jaso doguz zaingo onetan. Janari eta gayok, geyenik, mueta askotako urunakaz egiñak dira.

Gauza ofek galgei egozala jakin gerduanetik nungoak eta zelakoak eta ziran jakin nairik ibili gara, eta ofezkero zegan saltzen zituen.

Izatez onak dirala gayok, jakin dogu. Baña saneuŕia, prezioa garesti samaŕ etsi dogu, eta alegiñak egin doguz saneuŕi orixe eratsi dagien egileak, eta egin egiñean be, baletz erantzun dauskue ofa-gizonak, baña euron ontzialbeste era batekoak izanaz, gauzari ikutu barik, eta beraz lengo gayak merkeago.

Ontzi politak izan eta ez, gaurko ez da ardurarik. Gaya ona, zindoa izan ezkero orixe dogu beaŕen.

Ain zuzen be, gai ofexek karueg saldu dituelako izun edo multa bat ez afi dautsagu botikario bateri. Une oneitan irabazi mamiña bila bidebaga dabiltzanei, beste ofenbeste egingo dautsegu, zigortu eta kitu.

Gexoentzat eta umientzako janariak zaingo onek beronek egitea asmo dogu.

Onuratsua izango litzake, benetan bere, ortarako gairik geyenak eta langile prestuak ba-ditugu-ta. Egun baletik besteraoa ez da izango ofaltiño asmo au beteteŕa, beaŕ daben guztiertzako lain eta aldi baterako egin ni gendukez-ta.

**BERE LEKURA BAŔIRO**

Abanto ta Zierbana'ko sendagile-laguntzalo Garcia Lopez'taŕ Patirki'ren aurka egindako salakuntza agiriak ikusi, eta Udala'ren eritxia jaso, eta ondoko auzien zaingo ontako epaile argibidelanaren erabagia aintzat aŕtu ondoren, oraiñarte jardun izan dauan lanera, Abanto ta Zierbana'ko osalari -laguntzaletzaŕa baŕiren baŕi itzuli dedila Garcia jauna, erabagi dot.

Egokion agindariak, ogibide ta alogera kendu eutsazanetik gauŕ arteko irabaziak ordaindutea Udal oŕeri dagokio

Guztiak jakin dagien argitalduten dogu.

Bilbao, 1937 epaila 12'gn.—Osasun Zaingo Burukidea.

### Salerosketa ta Orniketa Zaingo'an

**ONTZI BAT JATEKOZ BETETA ETORI**

Ontzi bat jatekoz beteta etoŕi zaja esan zigun atzo Salerosketa ta Orniketa Zaingo'ko idazkari nagusi Atxa jaunak.

Beste askoz gaiñera, gaŕia, iriña ta zortzi mila naranja-kaja ekaŕi ditu.

**OGIA GAUR**

Gómez Beltrán orniketako zuzendaria nagusiak, gauŕ ogia izango degula esan zigun. Gari apuŕa etoŕi danez, gauŕ ogia eman al izango digutela ta, aurerantzean beaŕ dan beste al izateko lan eta lan diardutela gaiñeratu zigun Gomez Beltran jaunak.

—Lanak-lan izango dituzte nasako langile, ogikin eta Zaingo ontakoak, baiña, biaŕ ogia eman al izango degu —esan zigun.

—Beste eŕazioketa bat ere egitekotan naiz, ilaren ogeitabostgaren-ez ziur asko Garaiz esango dizutet zer banatuko degun.

Eta gaurkoz—esan zigun azkenez Beltran jaunak—ez dizutet beste izpaŕik.

*Gudari taldea, Lekeitio'ko kai-inguruan eguzki epela artzen.*

### Zuzentza ta Gogolan'tzea

**LEIZAOLA'REN JARDUNA**

Izpaŕiariak juan yakozanean—"gauŕ goizez aldi baterako Erekaldeberri'n ipiñi doguzan ikastolak ikusten izan naz"—esaten asi yakun Leizaola jauna.

Oraingo goraberak dirala-ta—jaraitu eban—ikastola ofeitan aiik eta umeŕik gelenek ikasi dagien, beran berafizko irakasketa-erea izango dogu.

Bosteun ume inguru doguz ofa joko dabenak. Eta iñoŕ, be, zer ikasteka ta iñoŕ ikastaroŕik galdu ez dagian irakasleak, ikastokiak eta umeak amaŕ milatan banandu doguz ta amaŕ milok, bost ikas-aretotan izango dira.

Bost mailatakoak goizean izango dabe ikasketea jaraian. Beste bost mailatakoak aratsaldez.

Irakasleak, be, batzuk goizean bakaŕik irakatsiko dabe ta besteak aratsaldez.

Ikastola-ondoan suagaketaŕik ba'litz gordetako, umeak euren gordelekua dabe paxistok Bilbao suagatzera etoenean be.

Ume oŕeintzat ikastola oŕeik eraldu daitezan etxedi eŕikoi oŕetako guraso diran emakume talde batek lan asko egin dau ta umeen alde egin dabezan alegiñak dirala-ta, zorionik sutsuenak damotsedaz.

—Guk jakin eta jakineraso daikegun beste baŕirik ez dago?

—Ez. Beste egun batez azalduko doguz beste baŕi batzuk.

### Gizarte-Laguntza

**GRACIA ARDURADUN JAUNA ZAINGOKO LANARI LOTU DA BAŔIRO**

Laister batez osatu ordukoxe, Gracia, Gizarte-Laguntza Zaingo'ko Arduradun jauna, Zaingoko lanari lotu da beŕiro ere. Danok dakigun bezela, oraintsu aste batzuk egin zioten osatebakuntza bide, Zaingoko lanari utsia gendun Gracia jauna.

Beregana jo gendun eta berak jaulkitakoa ingitxoa jaso ta jaso baiño ez gendun egin.

—Lenengo, osatebakuntza egin zidatenean eta, gero, osatzen egon naizen egunetan, nere osasunaz arduratu diran guztiai ene izenez eskeŕak eman. Dan-danai azaldu nai diet nere esker -miña, nere osasunaz arduratu diran bakaŕ eta batza guztiai, eta ni-neuk, banan-banan eman ezin dedanez, zuek izparing-bidez eman.

Ene eskeŕak, beraz, guztiai baita zuei ainbat arduratu zeraten izparkari ere. Oso onik naiz osasunez, eta ofexegaitik ekin ere ekin diot Zaingo'ko lanari. Lanari gogor eustekotan etoŕi naiz eta, ni emendik kanpora egon naizen egunetan Zaingo ontakoak, Bustos idazkari nagusi, Goñi ta Sampedro jaunak batez ere atergabeko lana egin dutela esan beaŕa ere badizutet. Buru ta biotz jardun dute.

Ingi bakoitza bere lekuan aurkitu det eta Zaingo'ko gorabera guztia bear dan bezela eta bear dan lekuan. Nere egunotako lan-etetzea bide. beste batzuk, eskeŕak, ez dute askoo eten, baiña, lanari buru ta biotz ekingo diot. Euzko Gobernuaren izen onaren aldez, aldegun bestez lan egin bear degu ta Euzko Gobernuak, gaurdaiñokoan ukatu ez digun bezela, auŕerantzean ere Zaingo oni laguntzarik ukatuko ez diolakoan nago. Oŕelaxe burutuko degu dagokigun gizarte-laguntza.

Eŕiak, emakuntzat-emakuntza, etengabean laguntzen digu. Oŕela, geurea izango da gurenda.

Lana ta lanerako gogorik ez da palta izango.

Zorionak Gracia Jaunari, osatu ta lanari ekin diolako. Gizarte laguntza zabaldu ta aufera!

**UMEAK FRANTZE'RA**

Bustos Zaingo'ko idazkari nagusi jaunarekin izan genduu ondoren aldi. Umeak Frantze'ratzea, gaurko, ilaren 16'gnerako. zegola iragaŕita, baiña, eragozpen batzuk soŕtu dirala-ta, eguna atzeratu egin dutela jakin erazo zigun Bustos jaunak. Izpaŕingi-bidez, garaiz egingo zituala bear diran oaŕak, esan zigun azkenez Gizarte -Laguntzako idazkari nagusiak.

**EMAKUNTZAK**

Nabafo'taŕ Joseba'k, 12 laurleko; Afiola'taŕ Joseba Mikel'ek, 50; Ufutidazle batek (gudarien umezurtz aldez), 125; Eŕazio-libretak galdu dituztenai kendutako isunena, Udala'k, 240. Danetara, 427 laurleko.

### Nekazaritza

**EREINTZAK ZAINTZEKO DELEGAUAK. LUŔA LUBAŔITZEKO ESPETXETAN DAUDEN POLITIKUAK LAN EGIN BEAŔKO DUTE**

Nardiz jaunarekin igan gendun aldi. Zugaitzadi ta basetxetako geiegikeriak dirala-ta, asaŕe-idazki batzuk aŕtu zituala esan zigun. Oŕegaitik, biaŕ diran neuŕiak aŕtzeko, bastetok zaintzeko, delegau batzuk aukeratu beaŕ zituztela gaiñeratu zigun Nardiz jaunak. Legea austen duanari, zigoŕa.

Espetxeetan dauden gasteak, beŕiz, lanerako aukeratuko ote zituzten-edo, jaraitu zuan. Luŕa lubaŕitzeko, oietxek lan egin beaŕko dutela alegia. Eta ofela—gaiñeratu zigun—gizarterako on baiño ez dute egingo eta nekaza kendu.

Mendietako Zuzendaritza Nagusiari ere, lantzeko esan dauden luŕ-bila aseteko agindu diot. Geure asmook eder izango diralakoan gaude ta nekazaritzak gorakoa egingo dualakoan.

**AZITARAKO PATATA**

Atzo, guda-etxe ta Gizarte Laguntza -Etxerako janari-batzen ibili ziranez, azitarako patata jasotzeko baimenak emateko astirik ez zuten izan Zaingo ontakoak. Ori zala-ta, gaurko utsi zuten lan ori. Ona emen gaur baimenik jasotzeŕa joan beaŕ dutenak: H, I, J, K, L, ta LL'dunak.

Orduak: bederatzi ta erdietatik, ordubatak aŕte.

**BASETXE-ERENTAK**

Basetxe-erentak ordaintze ta jaso ez duten efenten eskakizuna nagusiak duten eskubideari buruzko oaŕ bat eskuratu ziguten Zaingo ontan. Euzkadi'ko Gobernuak azkenengoz burututako Batzaŕean ontzat aŕtutakoa da oaŕ ori. Iñoŕk ezer jakin-erazo nai balu, amabost egunen baŕuan jakin-erazo beaŕko du.

### Pelota

## Ubila I ta Malabia'ko Txikia eskuz-esku

**UBILA'K, BI TANTOZ IRABAZI**

Iragaŕi bezela, eraŕegun, igandez, Ubila I ta Malabia'ko Txikiak eskuz esku jokatu zuten. Pelotariak, bero bero. Ikusleak, pil-pil.

Ogerleko otsa... Asi dira. Jo ortik, jo emendik, Ubila'k egin du lenengo aŕtera kada. 7—5, 9—6, 15—9. Ubila aufetik.

Ubila'k, lasaitu egin nonbait, aŕteraka da bide, ez du lenengo aŕetaz joten. Txikia, beŕiz, autsak eta basteŕ guztiak astintzen asi zan eta... asi bazan, asi zan! Emeretzigaŕen tantoan aŕapo Ubila! 19 19! 20—20! Azkenean ere... Ubila'k irabazi zuan: 22—20.

Estu ta laŕi egon ziranak baziran azken aldera. Danak urduri. Ikusleak da nak, atseginez lotu ziran.

⁂

Zabaleta ta Urzelai'rek, II'gn, Arieu eta Artamendi'ren aurka bigaŕen jokaldia.

Lenengo bikoteak irabazi zuan. 22—17.

Urzelai, beti antzo, jaun eta jabe. Artamendi ta Afien txikiak amaikatxu izeŕdi iaulki zuten baiña... baiña, baiña.

### Ostikoketa

## Euzko-Ekintzakoak eta Jel-alderdikoak beŕiro?

Bia ote? Kiroltzaleak badute oraingoxean beŕiketaldi! "Euzkadi" egazkin-alde Euzko Ekintzakoak eta Jel-Alderdi'koak beŕiro lenguneko ostikoketa jokatuko ote duten edo...

Oraingoan jokatuko balitz joatu, lengunekoak ezer ez dirala, amaikatxuk joko luteke "San Mames"era. Bai "ogerleko" ederik batu ere. Gogoa ba dago beintzat.

Balitzake biar ziur esatea. Gure ametsa beŕiro jokatzea litzake beintzat eta beste askorena ere bai. Biar arte!

**"Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikua'rentzat" ixildu baga esan ol-eban Arana Esnera au abuan, goguan eta bijotzian euki biaŕ dogu, beti ta beti.**

# LORETXO

## ELEBERRI - EDESTIA

*Zarautaŕ gudari kementsuari gelyaŕi ta maitasunez.*

IX

Yontxu: Zure idazkia aŕtu det eta ez dakizu nere poza zenbateraŕokoa dan osasunez zerala jakitearekin. Ni, oso ondo artzen naiz Yauna'ri eskeŕak. Gurasoak maitaz xamar dabiltza.

Zure idazkia aŕtu nuela ilabete igaro ta eta ezin erantzun izan dizut lenago; ba da, naiz ta Euzkadi'ko Jaurlaritzak emakume espetxeratuak onera bialdu, emengoak ez dituzte atera gaur arte eta ofeiptik oz dizut lenago erantzun. Bigaŕ diaz emakume abertzale batzuek beren senetxoarekin ingelandaŕ itxasontzian eta emakume oietako batekin bialduko dizut idazkia. Uste det Txomin'en emazterekin bialduko dizutela; ba da. gaxote gian dago espetxetik aterata eta ikertu det eta poz pozik emango ditela agindu dit.

Alai geratu naiz orko beŕiarekin, ba dakioztu nuen emen zabaltzen ziran beŕiak gezufak izango zirala.

Emen gertatzen ari diranakin itxasoko jokak ere negar dagite. Gizon zintzo guzink naiz ta beren alde zeudenak ikaratuta daude egin dituzten ankerkeri eta erailkeŕekin. Nere gurasoak ere asieran beraien ba'zeuden ere, orain naiz ta kaleau beren alde itzegin, etxean aita amak gaizkesten dute paxistak egin dutena. Asko otan ikusi ditut negaŕez gertakisunak ta afi esaten ari dirala. Gaxorik daude eta zaiariak dionez ez dira oso ondo arkitzen eta kezkatsu nago.

Urian gertatu dan zerbait edestuko dizut, guzia edeste nasi ezkero ez nuke amaitzeko...

Edesten asi baño lenago nere zoriontzeŕik sutsuna eman bear dizut kapitan jenaltu zaituelako. Nork esan bear zuen Yon'ek kapitan izan bear zuela? Ba'da ori zure zaletasunak ez dirala gudaritzako, baiña guk nai gabeko guda onetan bidegun guzia egin bear degu paxista an ilerak zapaltzeko.

⁂

Paxistak urian sartu ziranean emengo ofotasunak etzaukan neuŕirik. Bereala agertu ziran leiotan piperpoteak. Ba ziran batzuk janak ere, nunbait, ondo gordeta zeuden. Lenbiziko egunetan jator xamar agertu ziran... atzipetzeko asmoz, noski. Astebete igaro ondoren ekin zioten ankerkeŕi eta erailketak.

Zure lagun Andoni, gizon gaste abertzalearen gorpuatzila. Getari'ko ilelian erailda bilatu zuten. Emazte alarguna ikertu zuen. Orail dala egun gutxi bere gurasoen basetxera jun zan. Irusta basetxeko arma zaŕak eta bertan bizi diran kistaŕ eta abertzale zintzoak grinduko aldizkate alargun gaxoaren atsekabeak.

Isidor mutil gaste abertzalea ere erailla izango ote dan diote. Paxistak uŕitik eraman zutela aste batzuek ba'dira eta bere beŕirik ez da eta beste asko bezela uste det erailla izango dala.

Beste bi gofi ere erail dituzte. Uritaŕak ez diranak noiz nai bitxaba-bastefean txakur amofatuak bezela erailtzen dituzte. Yainkoa eŕuki bedi guziatzaz!

Espetxean daudenak asko dira naiz gizaseme eta emakume. Okaŕi dituzten isuŕak zugaŕiak. Aitzakl txikia bear dute lotsunak okaintzeko. Igarotako auteskundietan abertzale aldez autaŕkia emana izatea naikoa da isunak okaintzeko. Osalari zaŕa-ri iruŕogei anei lauŕleko isuna okaŕi dioe. Orain egun gutxi gurasoak ikertzera etoŕita itzegin nuen eta onela mintzatzen zan.

"Iruŕogei anei lauŕleko isuna ordaintzeak min eraman dit, baño, askoz min aundigoa eman dit nabaiturik sendi asko eta askoren poza neŕi isuna jaŕi diatelako. Atzipetua negon. Nik uste nuen eŕitaŕak geigo maite ninduela..."

Oleeta-ere pikardiak egin dituzte. Emendik atera ziradenen etxe bizitzak ere ustu dituzte. Espetxean daudenak aŕixku aundian arkitzen dira. Gaxo daudenentzat ere eŕukiŕik ez daukate... ¡Eŕuki gabeko piztiak dira!

Euzkeraz itzegitea galerazia dago. Euzko kutsua daukan guziarentzat gofoto bizia daukate. Oraintxe konturatzen naiz esaten zendunen. "Abenda gofotoa da" egi aundia ziozula.

Beŕi on bat eman bear dizut. Praileiako elizan entzun bear ez diran itzaldi pranko entzun ba degu ere, ezin geratu naiz Miren Sorkunde egunean praile gazte batek egindako itzaldia aitatu gabe. Abertzaleak poz eta negaŕa batean biotz barnean naibaiturik egon giñan. Euzkera garbian itz egin zigun eta Afate'ko Miren Neskutza'ren edestia esanaz, Eibar'ko eŕi jatofa goraldu zigun. Entzule guziak aŕituta geratu giñan. Konturatuko zera, gaur Eibar'ko eŕia goraltzeak zer esan nai duen emen dauden agintari aufean. Bildur naiz praile oneri ere zigofenbat jaŕiko ote dioten.

⁂

Udaleko agintarien (?) izenak ez dizkizut emango. Nortzuk diran ez ba'dakizu ere konturatuko zera nor izan leizken. Uri guziak egaŕi bizia dauka beŕiro euzko gudaroztea ikusteko. Saŕitan zabaltzen da mend'goizaleak datoztela. zoritxaŕez ez da egia gertatzen. Luzaroan auen mendean egon bear ba degu, ikusi ditugunak aundiak ba'dira. ikusteko gaudenak ez dira txiki'goak izango...

Abertzaletasuna il beaŕean, suspertzen ari da. Lenago abertzaletasuna nabaitzen etzitenak ere, pranko'etofi zaizkit ixilka, lenbait'euzkotar gudaroztea ikusi naia agetuaz. Asko eta asko dira konturatu diranak euzkotasunari dioten gofotoa eta odolak deitu diote.

Gipuzkoa guzian eta Napaŕoa'n ere berdin jokatu dute. Guda onen amaian egia jakitean ezin ziñisturik geratuko gera.

⁂

Zu emendik atera ezkero bakar bakaŕik ebiltzen naiz. Ez det "margarita" inguruan ebili nai. Zoraturik dabiltza gurenda ziur dutela usterik eta gurenda noramen indaŕez, paxistak egiten dituzten erailketak ere garbitu egiten dituzte. Kistartasunak baño geigo lezake nunbait abertzaletasunari dioten gofotoak.

Nik ez det galdu itxaropenik eta emen egiten ari diranak ikusi ondoren uste det ez duela gudarik irabaziko. bestela beintzat eŕuki euzkoak.

⁂

Parapetoan egindako ametsak zuri ezik neŕi begietatik malkoak ixuri dizkit. Itxaropena euki dezagun Yainkoagan guda ira bazle izango gerala eta ondoren zure ametsa egitasun izango da.

Nik ere ez nuen uste maite dizutan bezela maite nizunik neregandik ufutiratu arte. Emen igarotzen ditudan atsekabeak ba'dirudi zureganako maitasuna sutsuago tzeko dala.

Yauna'ri otoitzka ari naiz gurenda eta zure osasun aldez. Ondoren zoriona gure jabe izango dan itxaropen osoa daukat.

Agur, Yon. Biali beŕi ugari ta onak beste poz gabe bizi dan eta zure, zurea dan, *Loretxo*'ri.

MENDI LAUTA

# EGUNA JEL

Zeure abeſi - elia maite ezpa-dozu, zeure abeſia bez, eztozu maite.

Lgo. urtla | 64'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n '937'gn. epalla '6'gna. astartea | 15 eunen


AZKENENGO IZPARRAK

# Osera inguruan ainbat etxe artu dira joaldi baten

## Franco'k irabaztekotan, Hitler'eri laguntzeko ustea dau. - Paxistak nekatuta. - Leciñena eta Perdiguera'n batzen laga ez arerioari. - Euzko guda-oñetan. - Paxisten egazkiñak agure bat il Elorio'n.

MIAJA GUDA-ONETAN

Madrid.—Atzo goizean goiz urten eban Madrid'tik, Miaja gudalburuak, bere egunoroko ikerpena egiten guda-oñetara. Atzo bere laguntzat Hernandez'taſ Josu jaurgo burukidia eruan eban.

Miaja jaunak egun gustija igaro eban guda-oñetan, gudaketak ikusi eta eurok zuzenduten.

PAXISTAK NEKATUTA EDO

Madrid.—Atzo egun erdija erdi-illa ixan da guda-oñetan. Bakaſ-bakaſik Jarama aldian ixan zan zaratia. Guadalajara'n arerijuak nekaturik agiri da. Ikusten danez egunotan eruan daben makiladiaz, makaldu egin dira. Atzo goixtan inguru onetan, suagadaka jokatu da; bata-bestian arteko suagadatzia ixan da, baña efizalien alderakua ixan da.

Cifuentes inguruan, italiaſ gudarostiak aldendutian bidia erakutsi dabe. Uste danez, baſiz osotuteko edo indaſ geyagoz gertuteko asmoz.

Baña euran ustia austeko, efizalian egazkiñak eta suagadak ixan dira naikua. Eiza'ko egazkiñak be-betik egaztu ziran eta izkilazkaſakaz edozen bat kalte egin eutsen.

Jarama lufaldian arerijuak gogoſ jo eban, baña efizaliak biaſ gitxi ixan eben ixildu-eragin eta erakutsi biaſ eben lakua emoteko. Osera inguruan efizaliak eskusko joaldi bat egin eben eta ainbat etxe artu. Eztago erdi-aldian atzo aſatsaldetik aurera beste izpaſ aitatugariik.

## Donosti Buru Batzaſa

"Kizkitza„'ren (C. B.) idaz-lanak argitaratzeko, Donosti - Buru - Batzaſ, asmoa beterik, zabaldu ta dagon arpidearen jaſalpena.

| | |
|---|---|
| Oraindañokoa, laurleko ... ... | 2.652 |
| Eſenteria'taſ Gorgoni'k Deun Mikel Laguntza'ren izenez ... | 300 |
| Solozabal'daſ Joseba ... ... ... | 15 |
| "Kizkitza„'ren irakurle bat ... | 1 |
| Beste bat ... ... ... ... ... | 1 |
| Beste irakurle bat ... ... ... ... | 1 |
| Irakurle txindi gutxiko bat ... | 1 |
| Exkax dabilen batek ... ... ... | 1 |
| Oraindaño ... ... | 2.972 |

Maisky'ren itzaldia

## "Gure abeſiaren kaltez edonok egin leikien erasoaldiari eutsiteko gauza gariala esan nei, estadu bat izan ala estadu geyago, eta erbestetaſen laguntasun barik eutsi be.-Nazitaſak eskubidearen indaſik eztabe ontzat artzen; indaſa bai eskubidien oñaſitzaſ".

Londres.—Itzaldi gogoangari bat egin dau uri onetan Rusia'ko ordezkari Ivan Maisky'k. Egundoko baſiketak sortu ditu.

Alemania'k eta Japon'ek guda-egiune bat dauke alkaſekin eginda Rusia'ren kaltez jarduteko.

Orain, ostera, iñoan Maisky'k, gure efia, gure Estadua indartsu eta sendo dago, beste efien eraso eta erauntziai gogoſ eutsiteko bestean egon be, nai ta efiak alkaſ artuta egon.

Efi bi oſeik zapalduteko Rusia bere bakaſik dala naikoa adirazi nai eban, Japon eta Alemania, sorkaldetik eta sorkaldetik Rusia'ri oldartuten asiko ba'litzaker.

Beste estaduen laguntza barik be, Rusia'k bere burua zaindu eta jagon daike. Eta ez da au baſiketa utsa.

Azalpen ori, ordea, ez da Japon eta Alemania'rentzat bakaſik. Frantze'k Rusia'z egindako itunbena, guda-arloazkoa, Frantze'rentzat bearekoago, premiñazkoagoa dala esan nai dabe itzok, eta estadu onentzat gomutagaſi izan daitezan agertu ditu nonbait.

Itzaldi gogoſ ori Maisky'k egiten ziarduela, Eden eta Ribbentrop, ingeles Erbeste-Zaingoan izketaldian asi ziran, ingeles Gobernuaren oaſari Alemania'k belu baño beluago emon dautsan erantzunaz arean be. Oaſ ori, Locarno'ko egiune ordez beste bat burutu bearko dala iñoena zan, Rhenania'n aleman soldauak sartu ziran ezkero, itunben uts biurtu bai-zan.

Inglateſa zuritu nairik dabilela von Ribbentrop diñoe emen, gero Inglateſa'k Frantze'ri bideak aldatu-eragiten alegindu dedin. Frantze'k Rusia'z dauan guda-itunbena apurtu erazi, ala moztu eta ezereztu. Eden'ek eta aleman ordezkariak ordu baño luzanagoan jardun eben, eta urengo astean baſiro batzaſtuko dirala diñoe.

Maisky eta Ribbentrop euren asmoetan oso bardingeak ba-dira be, ba-dabe, ordea zerbait antzekoa. Auzi laſiak, ixilik barik oyuka eta itzaldietan agertu oi dituela.

Inglateſa'ko Erbeste-arazu Zaingoan olako gayak ixilik eta aopeka erabilten ditue iñoſk jakin ez dayazan.

Ribbentrop'ek geyagoko barik, Leipzig'era joan, eta an argi argiro zarataka jardun eban, europaſ geſatean Alemania'k galdutako koloniak baſiren baſi eskuratu beaſ zituela esanaz, eta gogoſean beaſ ba'da gogoſean, atan be.

Maisky'k oraingoan beste oſenbeste egin dauala esan bearko. Diplomazi bideak alde batera utzi, eta itzaldian argi ta garbi esaten ari da, Alemania eta Japon biak batean zapalduteko be gauza dala bere efia, Rusia.

Bake eta Rusia'zko adizkidetasun aldezko bigaſen batzaſean egin itzaldi garbi ori. Maisky'k, Alemania'ri zirikada edeſak jaurliaz.

"Azkenengo amabost ilabetetan izan diran gertaerak aztertuaz—iñoan Maisky'k—, geſa sortuteko aſiskuak ugaritu egin dirala esan giñei, eta batez be Rusia'ren kontra izatekoak.

Alemania eta Japon'ek egindako alkaſ lagundute egiunea aitatutea naikoa da. Egiune oſen guna, muña zer dan, ondo dakienengandik eldu da gugaya. Ez da besterik, guda-arauz Rusia'ren kaltez egindako egiunea baño.

Geſa aſiskuak ugaritu egin dirala argi dakigun aſen, geure aldetik be, besteren oldaſari eutsiteko gertakizun eta gai ugaritzeari ekin dautsaguna be, ba-dakigu, eta naikoa garala uste dogu.

Guk, muga bi bakaſik ditugu zaindu beaſekoak; sorkaldean eta sartaldean.

Ta ufengo au esatea, guda-ixilpekorik beaſ ez dala argitzea danik, ez dot uste. Muga bi oſek azken urtiotan, gotortu egin ditugu eta ez makalean be. Lan andi, gudaroste gizen, azken izkiluez orniduak, eta egazkin-sail ugari baño ugariago ditugu muga zaintzale aſiskura ezkero.

Ekonomi arloan be, sendotasun antzekoa dogu, eta gerturik gagoz.

Nire itz guztien eta bakoitzaren erantzupena neure gain arturik, ori eta geyago be, esan nei.

Gure abeſiaren kaltez edonok egin leikien erasoaldiari eutsiteko gauza gariala, estadu bat izan ala estadu geyago, eta atzeſitaſen laguntasun barik eutsi be.

Nire itzok siñistu nai ez dituenak be, izango dira, esanak, esan ol dirala-ta. Baña jakin begie. Gure indaſak neurtu nairik iñoſk zirika nai ba' ginduz, jolas negargaſia izango leukela jakin begi, gure guda-indarak noraſokoak diran jakin be, berandugi jakitea izan leike-ta."

Nazitaſetzaz ziarduela, auxe esan eban. "Burdiñ-eskuzoſaen jakituriaren aldakuntza baſia ikusten gagozala oraingoan, esan giñei.

Eskubidearen indaſa ez dau aintzat artzen. Indaſa, eskubidearen oñaritzat argi ta garbi artuten dau, osteru.

Itza jan, egiuneak ausi, eskeñitakoari lotsa galdu eta jaramon ez egitea, onbide eta onoimentzat etsi ditu.

Giza endaen ez-bardintasuna azaldu daroa, ta ori gure aldi onetan lotsagaſia izan, eta eſiarteko arazuetan daukan jokaera. Arako esakun zaſa, saſi oroituazi dau, dira-zoſoa alai bizia.

Irakaspen baſi ori, España'ko auzian argi agertu izan dabe. Egoera onetan, Europa'ko bakea arako "txanotxu gori„'ren antzera dago. Otso bat bakaſik ez dau obera jan nairik inguruan uluka, otso talde gosekila dabilkio ondoren, agiñak erakusten, bera birdufez eta izuez ikarako dagolarik."

Nastebila lenengo gudaka asten danari nai dauana egiten uztea oraſarte lez, Europa'n, geyago ez da oſelakorik laketu ez jasan beaſ—iñoan azkenez Maisky'k—, otsoak ez jatea izan leitekela-ta, zoro bezela uste izan baga.

FRANCO'GANA NAZITAŔ OTSEIN BAT

Berlin.—Hitler'en adizkide baruko Ernesto Hanfstaengi España'rantz urten dala diño, ixilpeko arazu gaſantzitsu bat burututeko.

Alemania'ra ez dala oin beingoan itzuliko diñoe.

MADRID'EKO AZKEN-IZPAÑAK

Barcelona.—Atzo gabeko bederatrijetan emon dabezan Madrid'ek guda-izpaſ berezijak auxe diñue:

Monte Oscuro'ko efizalien suagadak, Leciñena eta Perdiguera'n arerijuak eukazan jende batuntzatara jaurti ziran, eta sakabanatu egin yakezan. Beste gudaoñetan, betiko lelua, sunbaketia eta pakeua, baña ezetariko txaſik barik.

FRANCO ETA HITLER

Paris.—Frantze'ko agindaritza lekuetan-eta, Franco españaſ keneralak beste egiuneren bat egingo ete dauan Hitler'ekin, diñoe.

España'ko geſan paxistak irabazi ba'dagie 1 paña'k aleman nazitaſai lagunduteko itunbena izango ei-da.

## Guda idazki agiriak

Lagun artean

Lagun miñ oſi, aguſ:

Artu diat ire atzoko idazki mamitsuba, baita ire yakin-nayaz oartu ere. Guda-atzean (retaguardia) zaudeten geyenak ire antzekoak dituk, guda-gertaera yakin zaleak.

Oraingoz ezin diat iñungo frenteko izpaſik eman, Bermeo'n ba gatxeudek akuartelatuta.

Azken aldiz, Legutiano-gañean, berriro ilabete osoan izanduak gaituk; eta ez egualdi egokienakin; ebiya, eduſa ta aize otza izan diagu ugari. Alare ezin giñezkek kejatu, efekete-balak ez ditek rain-goan axerto aundi ik izan; zauritu bat eta ura zauri txiki batekin izan diagu.

¡Afanoa, ik ere bai al dek "guardia civil" begi okeſaren beſi? Jardun dek, bai, noizpenka, oraingo txandan ere, bañan al pefik, etzian ondo apuntatzen.

Guda oñeko beste beſi aundirik ezin diat eman oraingoan, mendiratutakoan maizago emango dizkiat, Jainkoa lagun.

Oyek galderak! Mermeo'ratutakoan zer egiten degun? Geyenean, pozez zoratzen, kantari egiten diagu safera, gero lokatzez betetako zarpa zaſak txokoratu, apaſ-apaſ jantzi ta kaleratu.

Gero emengo akeitetxe ta zineak emango ditek gu e beſi. Oyek dituk gure aufezki kutxak (Caja de Ahorros).

Garagardoa edan naya edo baldin ba dek ez adi Bermeo'ra eldu. Naiko eta sobra gaituk dena zufupatzeko. Zer egingo dek gefan bizi gaituk, bai, ta dena ameto egin bear. Kalean alproja-ſama apuſ bat izango diagu agiyan, baño mendiyan ere portatzen ba zekitek gure mut'lak.

Gaurkoz naiko diat, ufengo ene idazkian, "Belabita" lagundiak, euren fkuſin onezpena dal-ta, zer nolako jaiak eratu ditun adieraziko diat, Joseba Deuna egunerako eratuak dituk jai oyek.

Agur, lagun, Jel eta Euzko-Efkal aldez.

ANDONI

"Itxaſkundia"tik.

Prantze'ko izpaſingiak

## "Ondo eta ziur dakigu, Mussolini eta Hitler'ek España'ra euren gudatalde ugari eta ederki ornituak bialdu zituena" ("L'Humanite"). - Guadalajara'ko joaldiak.

GUADALAJARA'KO ASTIÑALDI GORDIÑA

Paris.—Uri onetako izpaſingiak be, Guadalajara aldean efizale gudarosteak izan dauan garaitza andia luze ta zearo azalduten dabe

Mussolini'k afoaren afoz ondo be ondo orniduta biali izan dituan gudasailak, españaſ Gobernua'ren indaſ aufez ezereztu ta gelditu dirala diñoe.

"L'Humanite"k, idazlantxo bat agertu dau gudaldi aretzaz azalpen eta iritzi batzuk egiñaz. Ona emen:

"Ondo eta ziur dakigu, Mussolini'k eta Hitler'ek España'ra euren gudatalde ugari eta ederki ornituak bialdu zituena, ango paxisten alde jokatu ezezik, garaitzale izan zeitezan.

Ta edonok ekian ori. Edonok, Frantze'k izan ezik. Eta paxismoaren aſiskurik geyen dauan efia izan aſen.

Españaſ erbeste arazuetako ministruak oraindik orain egin dituan azalpenak dirala bide, demokrazi-zale diran Estaduak bein betiko eta estu-estuan aitortu beaſko dabe españaſ auzian atzeſitaſak baſuraño saſturik diarduela. Españaſ auzia ez dala iñola bere, Estadu bafuko auzia.

Alemania eta Italia españaſ auzian be te-betean ari dira' argi ta zeatz dakiena esan beaſa izango dabe efi demokrazi zaleak, eta ori aitortutea gertaera laſi bat dauala munduak ezin ukatu izango dabe auferantzean oraſarte lez.

Guadalaara aldeko guda-oñetan, Gobernu españaſaren gudarosteak edeſki aizatu dau italiaſ gudaloroa.

Trijueque uria, italiaſ gudaloro bateк zaindua eukan, kañoe, izkilazkaſ eta esi sendoz. Uri ori, erepublikaren soldauak jo aldi gogoſean aftu egin eutsen.

Arerioak 200 ilotz baño geyago utzi zituen guda zelayan, eta ariñak arin aldegin.

Egazkiñez eta gudariak eurak jafaitu eutsen unetxo baten, eta kalte geyago egin be bai. Paxisten salak euren gotor-lekuetatik lokatuta geldi ziranean sei kilometro atzerantz egin beaſa izan eben.

Efizalien gu enda oſek, izu laufian jaſi zituen paxistak.

IRITZIKA

## Frantze'ko izpaſingirik geyenak txartzat etsiten dabe Italia'ren jokaera. - Ingelesen iritzi makalak. - Españar gobernua bide zuzenez. - Beste izpaſak.

FRANTZETAŔ IZPAŔINGIAK DIÑOENA

Paris. — Españaſ ministru Alvarez del Vayo'k Lateſi Batza'ren idazkaritza nagusira igoſi dauan oar dala-ta, izpaſingi pantzetaſ, bai Paris'koak eta bai enparau urietakoak, azalpen eta iritzi miritzi ugari agertu dabe.

Izpaſingi geyenak Italia'ren jokaerea txartzat esten dabe. Lengoetan baño askotaz be agiri eta nabarigaſiagoa bai-da ora'ngoan italiaſen jokabidea, gau-arte egin dabena gero be egitea gai izango dabe beste estaduak.

Diplomazi gizonak ikusi nai ezta ibili diran aſen, agirian eta biloisik dago batzun azpijakoa.

Ginebra'ko Batza lenbailen bildu bear dala diñoe egunkari geyenak, españaſ Gobernua'ren idazki ori aztertu, eta italiaſak guda oſetatik alde dagien erabagi estuak artzeko.

INGELESEN IRITZI MAKALAK

Londres.—Alvarez del Vayo'ren idazkia izpaſingi guztiak agertu dabe, Guadalajara aldean Italia'ko gudasalak osoro diarduela esanaz.

Baña salakuntza ori dala-ta, iritzi makal eta azalpen motelak geituaz.

ESPAÑAŔ GOBERNUA BIDE ZUZENEZ

Ginebra.—Izpaſkari eta politikoei zotin andia eragin dautse españaſ Estadu-ministruak Lateſi Batza'ri bialdu dautson idaskiak.

Esames eta zer esan ugari sortu dau ai tuen artean idazki ofen zeaztasun eta argitasunak.

Gogoſ argi eta zentzunez egiña da idazki ori, eta baſiketarien artean Gobernu erkaldaſaren aldez jardun dabe askok, Gobernu oſek Lateſi Batza'ren lege ta aginduak bete nayaz zintzoro jokatuten dauala-ta.